

## Bergarako margolariak

Beart elkarteko umeek erakusketa jarri dute

KULTURA, 20-21



## Bazkide kuotak igoko ditu Aloñak

Igoera barikuan egindako batzar orokorrean erabaki zuen futbol sailak

KIROLA, 18

## Joselu Anaiak

Eurekin izan gara Arrasaten

KULTURA, 26



# ASTELEHENEKO Goienkaria

ASTELEHENA • 2006ko ekainaren 26a • 3. urtea • 30. zenbakia • 0,90 euro

## Mariachiak eta Txan Magoa gaur, San Juanetako azken garrak itzaltzeko

*Euriarengatik ekitaldi batzuk ez egin arren, erantzuna ez da txarra izan asteburuan*

### PLAZA BETETA

Errementari Dantzak herritar ugari erakarri zituen eta danborradak sasoi onean jarraitzen du

### SALBEAN TIRABIRAK

Ertzainen babesean eta "lapurra" oihuen artean egin zuen bidea alkateak

### ESKORIATZA ETA ELGETA

Etzi hasiko dira San Pedroak Eskoriatzan eta Elgetako Ferixa Nagusia egunean

Euria eragozpena izan da aurten San Juanetarako prest zeuden hainbat ekintza aurrera eramateko. Hala ere, suspenditu ez ziren ekitaldiek erantzun polita izan dute, batez ere Errementari Dantzak eta danborradak. Gaur, astelehena, jaien azken eguna izango da mondra-goetarrendako. **2-5**



Herriko txikienek ongietorria egin zioten Eguzki Laruri atzo.

JOSETXO ARANTZABAL

## Udako Argazkien II. Lehiaketa

*Dagoeneko zabalik dago Goienaren lehiaketan parte hartzeko epea* **22**

## Elkargiren bulego berria Bergaran

*Debagoienari egingo dio zerbitzu eta bihar irekiko dute* **8**

## Futbol entrenatzaile berriak

Eguenean aurkeztu zuten antzularrek euren taldearen entrenatzaile berria, Andoni Azkargorta, hain justu ere. Bergaran, berriz, Neka Galan arrasatearra arduratuko da lehen erregionaleko taldeaz. Hala, Josu Zubiarren lekua beteko du. **18**

**GRUPO RK UZ**  
ARETXABALETA 1950 • 2006 ARRASATE

**ARETXABALETA**  
ELECTRODOMESTICOS  
Andramari auzunea  
Tel./Faxa: 943 79 10 97  
ARETXABALETA

**ARRASATE**  
ETXE MOBEL  
Araba etorbidea 5  
Tel./Faxa: 943 79 41 82  
ARRASATE

**ARETXABALETA**  
COCINA INTEGRAL  
Mitarte 3  
Tel./Faxa: 943 77 04 55  
ARETXABALETA

**ARETXABALETA**  
MUGELAK  
Araba etorbidea 20  
Tel./Faxa: 943 79 23 51  
ARETXABALETA

Betiko sukaldearekin asper-asper eginda? Har ezazu errezeta! Arkauz etxean ideia berriak emango dizkizugu.

**Arkauz zure etxea da.**  
FAGOR banatzaile ofiziala

# GEUREAN

- Antzuolako Satastin parkea egiteko sinadurak batzen jarraituko dute asteen | 7
- Tropela elkarteak Tourreko lehiaketa antolatu du sarean | 8



Ana Urteagarekin gay harrotasunaren egunaz jardun dugu | 06

**SAN JUANAK ARRASATEN**

**JAIAK** | HERRIKO ZAINDARIAREN JAIEN AZKEN TXANPA GAUR

## Gorabehera batzuekin egin dute aurrera San Juanek Arrasaten



Erraldoi eta kilikien konpartsak euriari ihes egitea lortu zuen.

JOSETXO ARANTZABAL

*Euria izan da eragozpenik handiena, baina ateritakoan ekitaldiek erantzun ona izan dute*

*Danborrada eta Errementari Dantzak ez dute hutsik egin eta herritar ugari erakarri zituzten plazara*

Jon Berezibar

Zerura begira egin dituzte San Juanak askok, hodeiek zer eka-riko zuten asmatzeko. Aurten euria izan da eragozpenik handiena eta aire libreko hainbat ekitaldik bertan behera geratu behar izan dute, zapatuko Monterongo kontzertuak kasu. Bestela, hodeiek bake apur bat ematen zutenean, ekitaldiek erantzun polita izan dute, zapatuko erromerian moduan. Hala eta guztiz ere, Errementari Dantza eta danborrada ez da zapuzterik egon aurten ere.

Makalaren jasotzeak eman ziren hasiera jaiari. Izerdi patsetan eta sustoren bat edo beste hartuta, azkenean lortu zuten gazteek enborra, tente, plaza erdian kokatzea.

### TIRABIRAK SALBEAN

Salbe tradizionala arratsaldeko zortziak aldera egin zuten udal ordezkariak. Tentsioa espero zen salbean, besteak beste, Gelmako auzia dela medio, eta hala izan zen. Ertzain-lerro luze batek babestuta "lapurrak" eta "dimisioak orain" oihupean egin zuen Inazio Lakuntza alkateak parrokiarako bidea. Ines Aldai, Nestor Arana eta Aitor Saez de Azkunaga jeltzaleak falta ziren udal taldean. Parrokiara sartu eta gero hasi ziren tirabira handienak. Bultzada eta ahozko liskarrrak egon ziren ertzainen eta manifestarien artean eta sortutako nahasmenean, Biona tabernara sartu ziren ertzainak, esanez handik botila bat bota zieten. Gertakizunen harira,

Arrasateko Udaltzaingoak ere adierazpenak egin gura izan ditu. Hedabideei igorritako agiri baten "engainatuta sentitzen" direla esan dute, ez zekitelako babesba Ertzaintzarekin egin behar zutela. Udaltzainek, era berean, aho batez jakinarazi dute "etorkizunean baldintza horietan edozein lan egitera behartzen bagaituztela uko egingo diogu". Osterantzean, egubakoitzari dagokionez, gau giro polita izan zen nagusi.

Zapatua ere modu oparoan hasi zen, goizean goiz zezen-plaza goraino bete zen-eta; jendetza entzierroa ikusteko irrikaz. Ondoren erraldoi eta kilikiek hartu zituzten kaleak eta horrekin gutxi ez balitz lekukoa McKensy's Clan Band *eskoziar* txorrek hartu zuten, bazkalaurrekoa alaitzeko. Panorama arratsalde aldera hasi zen iluntzen, euriak etenik egingo ez zuela ematen zuen-eta. Hori dela-eta, bertan behera geratu ziren arku tiroketa saioa eta gaueko Doctor Deseo eta Rafa Ruedaren emanaldiak. Azkenean gauean ez zuen euri handirik egin, baina trukean erromeria politaz gozatu ahal izan zuten plazara gerturatu zirenek Joselu Anaiekin.

Atzo, haurrena izan zen jaiari. Eguzki Laruri ongietorria goizean eta arratsaldera arte zabalik egon zen jolas-parkea. Gazteek, ostera, txosna-gunean egin zuten bazkaria eta arratsaldean *Tango Volado* ikusgarria eta Amaian *Todos nacemos vascos* egon ziren ikusgai. Gauean, txosnetan, herriko Ozenek eta Naiz Roxa pasaia tarrek jo zuten.

**Danborrada eta Errementari Dantzarekin ezin izan zuen euriak**

**Zapatuko kontzertuak bertan behera geratu arren, erromeria egon zen**

SAN JUANAK ARRASATEN



Tentsio uneak bizi izan ziren Ertzaintzarekin egubakoitzeko salbean.




Dantzariak aurten ere ikusgarri aritu dira Errementari Dantzan.



Arrasateko Dragoia San Juan sua isiotzen.



Danborradako giroa paregabea izan da aurten ere.



Egunero bete da zezen-plaza jendez.

### Euriak ez zuen San Juan sua apaldu eta jaiek behar bezalako hasiera izan zuten

Euriak ez zuen zapuztu San Juanetako sua. Errementari Dantzak, ohi bezala, jende piloa batu zuen plazan. Dragoiak sarrera egin eta sugarrarekin piztu zuen jaietako ikurra. Batzuk kexatu ziren gero eta txikiagoa ei delako sua, baina tamaina ez zen traba izan gazteek suaren gainetik jauzi egiteko. Alkateak, espiritu txarrak uxatzeko, abarkak bota zituen sutara, tradizioak ezartzen duen moduan, eta txistu artean egin zuen hura ere Lakuntzak.

### Danborrada goraka doa eta aurten Santa Marina elkartekoak ere batu dira

Badirudi poliki-poliki danborrada berriz ere indarra hartzen hasi dela. Iaz konpainia berri bat estreinatu bazen, aurten ere talde berri bat atera zen egubakoitzean: Santa Marina auzokoak. Horiekin, zortzi izan ziren danborrada osatu zuten konpainiak. Talderik jendetsuena Arrano elkartekoa izan zen, 60 lagun-jole baino gehiagorekin, eta baita gazteena ere. Giroa ezin hobea izan zen han ere, kupel, danbor eta makila artean.

### Bandaren kontzertua Amaia antzokian egin zuten eta Abaroan erretiratuei omen

Kontzertua aire librean beharrean Amaia antzokian izan zen eta goraino bete zen aretoa. Lourdes Arkotxa minbi-ziak jota berriki hil den Musikaire elkarteko presidente izandakoari eskaini zioten emanaldia. Bien bitartean, Brigida Monje -100 urtekoa- eta Juan Loiti -97koa- omen- du zituzten Abaroan. Alkateak berak loreak eman zituztion Brigidari eta Juanek txapela jaso zuen Inazio Lakuntzaren eskutik.

## SAN JUANAK ARRASATEN



Zalerik gazteenak ere dantzan ipini zituzten Joselu Anaiek zapatuko erromerian.



Dragoi Jana plazatik Uarkapera aldatu zuten eta ez zuen esperotako erantzunik izan.



Eguzki Laruk bisita egin zuen atzo.



Brigida Monje, Lakuntza alkatearekin.



Amaia bete egin zuen Arrasate Musikaleko bandak.



Susto bat edo beste izan zuten makala jasotzean egubakoitz arratsaldean.

## Zezen plaza jendez bete da egunero eta entzierroko parte hartzea ere handia izan da

Goizeko bederatziatan jendez lepo egon da bai zapatu zein domekan Laubide plazan ipinitako zezen-plaza. Piztutako ikusmina handia izan da eta entzierroan ere gazte ugari egin dute korrika bigantxen artean. Atzo errekortadoren lehiaketa egon zen zezen-plazan eta han ikusitako saihestak eta mugimenduak ez ziren makalak izan inondik inora. Susto eta barreak tartekatatu zituzten errekortadoreek zezenak saihesten.

## Behar den moduko ongietorria egin zioten haurrek Eguzki Laruri atzo Zaldibarren

Ongietorri itzela egin zioten Arrasateko haurrek atzo goizean Eguzki Laruri. Seber Altuben batu eta jolasean joan ziren Zaldibarreraino Eguzki potoloari kaixo esatera. Puzgarri eta jokoekin, pilotalekuko zalaparta ikusgarria izan zen atzo goizean. Jai koloretsua eta dibertigarria izan zen etxeko txikiendako Eguzki Laruri ongietorri hau. Arratsaldean ere ireki zuten jolas-parkea eta zurrupaki tropikal berezia banatu zuten haurren artean.

## Mariachiak, numenak, magia ikuskizuna eta soka dantza, gaur, jaien azken txanparako

Jaiekin amaitzeko, eguerdi partean Eusko Labelen eskutik hegaluze eta atungorri dastatzea egongo da herriko plazan, Goikobalu abesbatzak girotuta. Bien bitartean, Los Angeles de Mexico taldea ibiliko da alde zaharreko kaleak girotzen. Arratsaldean *Numenak* haurrendako antzerkia egongo da Seberren eta txosna-gunean Txan magoak egingo du ikuskizuna. Gauean mariachiak egongo dira herriko plazan *México Lindo* ikuskizunarekin.

SAN JUANAK ARRASATEN

• ZELAN DOAZ JAIKAK? ZER DUZU GUSTUKOEN?




GLORI ETA CELESTINO | ARETXABALETA

Ia urtero etortzen dira Glori eta Celestino Arrasateko San Juan jaietara. "Bertan familia daukagu eta eurek bazkaltzera gonbidatzen gaituzte jaietan". Pozik etortzen dira eta gehien dantzak gustatzen zaizkie, Gloriren esanetan. "Atzoko danborrada galtzeak pena handia eman zigun, baina eguraldiak ez du batere lagundu. Datorren urtean gehiago eta hobeto".




KIKE | ARRASATE

"Giro ona dagoela esango nuke, gauean irten ez naizen arren. Zezenetan sarre-rak saltzen egotea tokatu zaigu eta...". Zezenetara jende mordo hurbildu dela esan digu Kikek, plaza bete-bete egin dela. "Bihar goizean ere han...".



UNAI ETA LOREA | ARRASATE

7 eta 3 urteko anai-arreba hauek jaiak oso ondo doazela esan digute. "Zezenak gustatzen zaizkigu gehien, baina gaur ez gara joan ikustera, atzo berandu joan ginen etxera eta.... Danborradan egon ginen eta asko gustatu zitzaigun". Dragoia ere ikusi zutela esan digu Loreak eta ahotik sua botatzen bazuen ere, ez zirela beldurtu. "Bihar goizean Eguzki Laru ikustera joango gara".



LEIRE ETA NEREA | ARRASATE

14 urteko bi neska hauek ere jaiak primeran doazela esan digute. "Gauean ibiltzen gara gu gehien, giro hobea egoten da eta!". Kontzertuetan eta txosnetan gustura egoten direla aitortu digute. Aurtengo egitarauaren inguruan galdetu diegunean umeentzat gauza asko daudela esan digute Leire eta Nereak, eta ez horrenbeste gazteentzat. "Barikuan danborrada ikusten egon ginen urtero bezala, baina ez dugu parte hartzen".



AMETS, HODEI, OIHAN, LIA ETA PAULO | ARRASATE

Arbolaren inguruan topatu dugu Arrasateko lagun taldea jolasean, herriko plazan. "Jaiak oso ondo hasi dira, gauza asko daude!", esan digute gaztetxoek. "Zezenak gustatzen zaizkigu gehien eta goizean plazara joaten gara ikustera. Horregatik ez gara gauean oso berandu arte gelditzen, bestela gero jaikitzea kostatu zaigu...", esan digu Hodeik. Eguzki Laru ere oso gustuko du taldetxo honek. "Urtero joaten gara Eguzki Laruri ongietorria egitera eta oso ondo pasatzen dugu berarekin", esan digute.

Eskoriatzako San Pedro jaiak

EKAINAK 28, EGUAZTENA

- 18:30: Jaiaren hasiera.
- 19:00: Buruhandi eta txistularien kalejira.
- 19:30: Parrokiako abesbatzaren emanaldia San Pedro elizan.
- 20:00: Dantzaldia Kupela taldearekin herriko plazan.
- 22:30: Nagusien danborrada. Gero Kupela taldea.

EKAINAK 29, EGUENA

- 09:00: Txistularien kalejira.
- 11:40: Elizbira.
- 11:55: Txistulariekin batera Udal korporazioa San Pedro elizara joango da.
- 12:00: Meza Nagusia San Pedron.
- 13:15: Musika Eskolako Bandaren kontzertua herriko plazan.
- 17:30: Umeentzako antzerki musikala herriko plazan.
- 18:30: Pilota partiduak.
- 20:00: Egan herriko plazan.
- 22:45: Zaragozana Piroteknien suzko erruberak, kanposantutik.
- 23:15: Oinkari dantza taldearen Oroituz ikuskizuna Gorosarri plazan.
- 24:00: Egan taldea herriko plazan.

EKAINAK 30, EGUBAKOITZA. UMEEN EGUNA

- 09:00: Txistularien kalejira.
- 12:00: Pirritx eta Porrotx pailazoak.
- 12:00: Herriko hildakoen aldeko meza.
- 16:30: Mus txapelketa Gernika plazan.
- 18:30: Haurren danborrada.
- 20:00: Drindots taldearekin dantzaldia.
- 23:00: Golden Apple Quartet ikuskizuna Gorosarri.
- 24:30: Rock jaialdia txoznetan.

UZTAILAK 1, ZAPATUA

- 09:00: Txistularien kalejira.
- 12:00: Trikitilari Eskolako kalejira.
- 12:30: Talogileak eta sagardo kupelak herriko plazan.
- 13:00: Euskal Dantza Musika Eskolako dantzari taldeen ikuskizuna.
- 14:30: Herri Bazkaria Gorosarri.
- 18:00: Umeentzako jokoak plazan.
- 18:30: Ongi etorria Batukadari.
- 19:30: Euskal preso eta errefuxiatuen aldeko kalejira txarangarekin.
- 22:00: Rock kontzertua unibertsitateko aparkalekuan.
- 23:00: Tapia eta Leturia plazan.
- 24:00: Jaiaren amaiera.

Elgetako Feria Nagusiko jaien egitaraua

EKAINAK 29, EGUENA

- 16:00: Umeentzako puzgarriak kirol kantuan: gazteluak, kart pista...
- 20:00: Mozorro jaitsiera Irulitxa txarangarekin, plazara iritsitakoan alkate txikiari emango zaio agintea.
- 21:30: Afari herrikoia plazan.
- 23:00: Larrain dantza hasi arte Irulitxakoek joko dute plazan
- 00:00: Larrain dantza.
- 00:15: Irulitxakoek jarraituko dute.

EKAINAK 30, EGUBAKOITZA

- 11:00: Umeentzako puzgarriak kirol kantuan.
- 12:00: Meza.
- 13:00: Jubilatuentzako ekintza berezia Elgetako trikitilariarekin.
- 14:00: Jubilatuentzako bazkaria Espaloia Kafe Antzokian.
- 17:00: Umeentzako play back lehiaketa plazan.
- 18:30: Buruhandiak.
- 19:00: Zezenak.
- 20:00-21:30: Erromeria Alai taldearekin.
- 23:00: Dantza lehiaketa.
- 00:00: Erromeria Alai taldearekin.
- 00:00: Kontzertua Gaztetxe ondoan.
- 05:00: Trikipotea gaztetxeokoen.

UZTAILAK 1, ZAPATUA

- 11:00: Esna deia Tolosako dultzaineroekin.
- 12:00: Bolo txapelketa umeendako.
- 13:00: Asto lasterketa.
- 14:30: Paella jana.
- 17:00: Guztiondako jokoak Salbadorren.
- 18:00: Zezenak.
- 19:00: Buruhandiak.
- 20:00-21:30: Erromeria Gaubela taldearekin.
- 22:30: Danborrada.
- 00:00: Erromeria Gaubela taldearekin.
- 00:00: Bolo txapelketa.
- 00:00: Kontzertua Gaztetxe ondoko lautadan. Anger eta Ozen talde arrasatearrek.

UZTAILAK 2, DOMEKA

- 09:00: Ferixa Nagusia zabalduko da. Elgetako trikitilariak alaituko dituzte kaleak goizean zehar.
- 18:30: Djolof percusion Senegaleko taldearen emanaldia.
- 22:30: Carbon Club Markeliñeren lan arrakastatsuekin jaiaren amaiera.

Etzi, hilaren 28an, ospatuko da gay harrotasunaren eguna eta Bilboko Aldarte elkarteak ere modu berezian

ospatuko du. Ana Ureta taldeko kidea da eta bikote homosexualen eskubideez jardun zuen egunean Aretxabaletan.

ANA URETA | ALDARTE ELKARTEKO KIDEA

# "Lesbianek ezkutuan jarraitzen dute, gayek ez bezala"

Jon Berezibar

**Eguaztenari begira, zertan oinarrituko dira aurtengo aldarrikapenak?**

Aurten zertxobait urrunago joan behar dugula pentsatu dugu, eta transexualen egoera larria salatu gura dugu. Operazioak gabe nortasun agirian sexua aldatu ahal izateko legea bidean da dagoeneko, transexual guztiek ez dute eta ebakuntza egin nahi. Kongresura eroan zuten orain bi aste eta Senatuan onartu behar da. Trabarik ez dela egongo uste dugu.

**Alor horretan legoke egungo borroka?**

Gizarte honetan eta medikuntzaren arloan, gaur egun, lehen homosexualekin gertatzen zena dabil pasatzen transexualitatearekin; medikalizatu egiten dabilela. Uste da osasun arazo bat dela, eta hormonazioarekin eta ebakuntzen bitartez bideratu gura dute medikuek. Transexual batzuk, baina, ez daude prest horretarako, eta medikuek ez dute onartzen. Psikologikoki emakumea izateko, uste da nahitaez behar dela emakumezko gorputza, baina ez du zertan beti hala izan.

**Lesbianismoaren agerikotasunaz ere asko berba egiten da aldarrikapenetan.**

Dagoeneko hainbat eta hainbat gay plazaratu dira eta erreferente ere bihurtu. Agerikotasun hori lortzean dauka orain lesbianismoak erronka. Gizarteko alor desberdinetan lanean dabilta gizon homosexualen zerrenda erraz egin genezake, baina emakumeekin horrenbeste izen ez zaizkigu burura etortzen. Lesbianismoa ilunpetik atera eta kaleratu egin behar da, ezkutuan jarraitzen duela iruditzen zait eta oraindik orain.

**Matxismoaren eragina han ere.**

Sexismoaren ezaugarri bat da, zalantzarik gabe. Emakume heterosexualek ere ez dute lortu arlo guztietan berdintasuna. Horren atzean ere badago emakumezkoen autoestimua eta ematen du kalean lesbianismoa homosexualitatea baino okerrago ikusten dela. Horregatik uste dut emakume homosexualak zailago dutela agerikoak izatea. Arlo guztietan gizonak izan dute aitzindaritzatza, lehenak izan dira bidea jorratzen, baita agerikoak izan



J.B.

Aldarteko ordezkari moduan etorri zen Ana Loramendik gonbidatuta.

ten ere, eta datozen urteetan lesbianismoaren txanda izango da, hala behar du-eta.

**Hala ere, sexu askapenean feminista taldeek egin izan dute borroka handien.**

Orokorrean bai, baina Euskal Herrian zehazki, emakumeen lehen asanbladekin batera EHGAM agertu zen. Feminismoa lesbianismoa garatzeko toki ede-

rra izan da. Gizonezko homosexualak EHGAMen mugitu dira. Hala ere, sexu askapenarengatik egindako lana aintzatetsi behar zaio feminismoari.

**Orain urtea beteko da sexu berekoen ezkontzak legeztatuz zirela. Zein da balantzea?**

2005eko datuak bakarrik dauzkagu eta ekainetik abendura 2.005 ezkontza egon dira autonomia erkidegoan, espero baino ezkontza gutxiago. Guk dauzkagun datuen arabera, gizezkoak izan dira gehienak eta emakumeen artean seme-alabak dituztenak ezkontzen dira gehienbat. Hala ere, hiru-lau urte itxoin beharko da. Eskubidea lortzean zetzan gure arrakasta eta norberak orain gura duena egin dezake. Abortoaren legea onartu zenean gizartearen erdiak ez zuen onartzen, eta dibortzioarekin berdin. Gaur egun hori gaindituta geratu da. Abortoaren, dibortzioaren eta sexu berekoen ezkontzaren legeek bidea ireki behar dute gizartean, hezi. Homosexualitatearen aldeko borrokan onarpena ere gero eta handiagoa da, inkestek diotenez.

**"Aurten transexualen eskubideak aldarrikatuko dira ekainaren 28ko manifestaldian"**

**"Abortoarekin edo dibortzioarekin gertatu moduan, legeek aurretik joan behar dute, hala, gizartea hezteko"**



GORETI ELORTZA

Alkateak eman zien lehenengo saria Kalebarrengo Ramon eta Beleni.

## Kalebarren 5eko balkoi bat izan da dotoreena

Goreti Elortza

Urtero moduan ospatu zuten antzuolarrek San Juan bezpera. Herriko plazan zuhaitz luze-luze bat jarri zuten iluntzean eta ondoren dantzariak inguruan dantza ugari egin zituzten. Aurreko urteetan baino jende gutxiago batu zen plazan.

Segidan, Jose Anjel Zabalo alkateak urteroko balkoi politenaren lehiaketako saridunak izendatu zituen. Aurtengo lehen saria Belen Berasategi eta Ramon Jauregik eroan zuten. Kalebarren 5eko 2. solairuan bizi

dira (ezkerrean), eta Belenek berak kontatu zigun moduan ez dago sekreturik lore horren politak izateko: "Lore konbinazioa eskatu eta gero ondo zaintzen ditut; baserriko satsa, ura eta momorroen kontrako likido bat botatzen diet". Irabazten duten 2. aldia dela esan zigun Belenek. Bigarren saria Bustinzuri 14ko 3. solairukoek eraman zuten, Maider Beistegi eta Edu Iñarra bergararrek. Alkatearen esanetan, ez da zaila izan 1. sariduna aukeratzeko, baina bai 2. sariduna, "guztiak oso politikak ziren eta... Oso pozgarria da hori".



JON BEREZIBAR

Garai, Lakuntza, Salazar eta Velez de Mendizabal prentsaurrekoan.

## Union Cerrajerak 100 urte bete zituen egunean

M.B.

Ekainaren 22an, egunean, 100 urte bete ziren Union Cerrajera de Mondragon sortu zutela. Urtemugarekin batera, enpresaren ibilbidearen gainbegiratu egiteko prentsaurrekoa egin zuten Arrasateko Mondragon hotelean. Ekitaldian egon ziren: Ignazio Lakuntza, Arrasateko alkatea; Juan Ramon Garai eta Jose Mari Velez de Mendizabal, Union Cerrajera de Mondragoneko langile eta langile ohia, hurrenez hurren; eta Daniel Salazar, lantegiko Administra-

zio Kontseiluaren eta akziodunen ordezkari gisa.

**LANTEGIAREN 100. URTEMUGAKO EKITALDIAK**

Fabrikaren 100. urteurrenaren gaineko erakusketa antolatzen dabilta dagoeneko. Hala jakinarazi zuten eguneko prentsaurrekoan. Asmoa da erakusketa hori datorren urteko ekainean ipintzea Arrasaten. Gainera, ibiltaria izango da, eta gero Bergarara eraman nahi dute. Horrekin batera, lantegiaren 100 urteak batuko dituen liburua egingo dute.



JOSETXO ARANTZABAL

Sagastin Parkearen Aldeko Plataformako kideek mahaia jarri zuten sinadurak biltzeko.

## Enpresa eta auzoetara ere joango dira sinadura bila

*Gaur dute hitzordua plataformako kideek, 19:30ean Antzuolako udaletxean, sinadurak zenbatu eta beste ekimen batzuk zehazteko*

Goreti Elortza

Egubakoitzean, San Juan bezperan hasi ziren Antzuolan, Sagastin Parkearen Aldeko Plataformakoak sinadurak biltzen. Herriko plazan jarri zuten mahaia. Herritar talde horren helburua da Sagastiko ingurune berdean, "herrian gelditzen den bakarrean" parke bat aldarrikatzea.

Antzuolako Udalak han gizar-te eta kultura etxea eraikitzeke asmoa dauka eta Xabier Legor-

buru plataformako kideak argitu digun moduan, "Udalarekin biltzeko datarik ez daukagu, baina Udalak proiektua nahiko aurreratuta dauka, eta beraz, lehenbailehen bildu beharra daukagu sinadurak herrian". Hamar egunean bildutako sinadurak aurkeztuko dituzte udaletxean; datorren domeka arte batuko dituztenak.

Herritar ugarik osatzen dute plataformak, eta Legorbururen esanetan, "edonork har dezake

parte plataformak horretan zein sinatzerakoan, gure proiektuarekin ados dagoen edonork. Hala ere, herria eta adina eskatzen dugu, Udalari aurkeztean datu zehatzak eman ahal izateko". Plataformakoek ez dute kopuru bat zehaztu, baina sinadura-bilketa bide onetik doala jakinarazi dute.

**ASTE BARRUAN GEHIAGO**

Asteburuan zehar zentroan jarri dute plataformakoek mahaia, baina astean zehar enpresetara eta auzoetara ere hurbilduko direla sinadura bila aurreratu zuten. "Ahal dugun guztia egin behar dugu oso denbora laburrean", dio Legorburuk. Herritarren parte-hartzea ere eskertu nahi izan du.

### • LUDOTEKAREN JAIA LEINTZ GATZAGAN



JOSETXO ARANTZABAL

### AGUR ESAN ZIOTEN BARIKUAN LUDOTEKARI

Udan atseden hartzeko, ateak itxi zituen egubakoitzean Leintz Gatzagako ludotekak. Hala, neska-mutikoei agur esateko jaia antolatuta zuten San Migel plazan. Umeek ondo baino hobeto pasatu zuten: desfilea egin zuten, musika izan zuten eta baita txokolate jana ere. Jaia ez zen, baina, umeendako soilik izan, bertaratu ziren gurasoek ere ondo baino hobeto pasa zuten eta baita tripa bete ere han banatu zuten txokolate beroarekin.

### Labur

## Gaur eta bihar grebarik egingo ez dutela esan dute Iraundiko langileek

Langileen ordezkarien esanetan, azken egunotan negoziatziotan hasi dira enpresako zuzendaritzarekin: "Badirudi gure posturak hurbiltzen hasi direla", azaldu dute, eta, ondorioz, grebarik egingo ez dutela aurreratu dute; oraingoz, behintzat. 2006ko Lan Hitzarmena sinatu ez dutela-eta egun osoko greba egin zuten hilaren 20an. Langileen eskari nagusiak dira: soldatari dagokionez KPI gehi 1,6 puntu igotzea, orduak murriztea eta segurtasun handiagoa.

## Istripu bik arazoak sortu zituzten Bergaran eta Gatzagan, zapatuan

Zapatu goizean gertatutako bi istripurengatik Arrasatetik Bergararako bidea eta Gatzagako bide zaharra hainbat orduz itxi zituzten. Lehenengoa Elorregin izan zen, 09:00ak aldera eta bi autok elkar jo zuten. Zauritu larririk ez egon arren, lagun bat autotik atera behar izan zuten suhiltzaileek eta Debagoineko ospitalera eroan. Gatzagako istripuan, berriz, bi kamioik jo zuten elkar, 11:00ak aldera eta 14:00ak arte ez zuten bidea zabaldu. Zauritu arin bat egon zen.



# Erosten jakin:

ZURE FAMILIARENTZAT ONENA AUKERATU

 **EROSKI**  
Erosten jakin

## Albiste izango da

ANTZUOLA | 23,5 METRO LUZE DA

## Egurrezko zubi berria jarriko dute eguaztenean Uzarragan

Behoko Auzoa Uzarragako bide berriarekin lotuko dituen zubi jarriko dute eguaztenean. Oinezkoendako zubi izango da, egurrezkoa eta neurri handikoa: 23,5 metro ditu luzeran, 2,50 zabalera eta 1,40 altueran. Irungo Laister enpresak egin du zubi eta 36.000 euro balio ditu. Trailerrean ekarriko dute; pieza bakarra da eta 08:30 aldera hasiko dira jartzen. Besteak beste, Behoko Auzoko bizilagunendako onuragarria izango da zubi, erre-karen beste aldeko aparkalekuan autoa erosoago laga ahal izango dutelako aurrerantzean.

DEBAGOIENA | EUSKARA SUSTATZEA DU HELBURU

## Tropela Elkarteak Tourrerako lehiaketa antolatu du sarean

Tropela Elkarteak euskara teknologia berrietara zabaltzeko lanean ari dira, eta horretarako, txirrindularitza ardatz hartuta –Euskal Herrian dagoen txirrindularitzarako zaletasuna eta era honetako zerbitzu falta dira abiapuntua– lehiaketa jarri dute abian Interneten, doan eta euskaraz. Hala, euskaraz interneten duen presentzia indartu nahi dute. Bultzatzaileen helburua da 5.000 erabiltzaile iristea, baina, edozein kasutan ere, zifra bikaina lortuko dutela ziur daude eta iazko 3.000ko kopurua gaindituko dutela. Parte-hartzea Internet bitartez soilik egin ahal izango da, [www.tropela.net](http://www.tropela.net) helbidean, pertsona bakoitzak kiniela bat egin ahal izango du eta guztia euskara hutsean.

ARETXABAETA | IRAILEAN HASIKO DA

## Euskaldun zaharrak behar dituzte Berriketaren egitasmoarako

Berriketaren egitasmoa jarri dute abian Udalak, Leintz Udala Euskaltegiak eta Loramendi Euskara Elkarteak. Ekainean abiarazi dute, baina irailean gorpuztuko dute egitasmoa. Euskaldun berriak eta zaharrak harremanetan jarriko ditu Berriketaren proiektuak eta helburua da euskara ikasleek zein euskaraz jakinda berba egiteko ohiturarik ez dutenek euskaraz berba egiteko ohitura dutekin jardutea. Hori guztia kontuan izanda, ekain hasieran egitasmoaren parte-hartzeko gonbidapenak bidali zituzten eta hasi dira erantzunak jasotzen: 11 bat euskaldun berri edo euskaraz egiteko ohiturarik ez duten euskaldun zaharrek eman dute izena. Orain, horiendako euskaraz bizi diren pertsonak behar dituzte. Hala ekimenean parte-hartzeko dei egiten dute antolatzaileek.

BERGARA | IBARGARAI KALEKO 30EAN IREKIKO DUTE

## Ibarrari zerbitzu egiteko bulegoa irekiko du Elkargik martitzenean

Debagoienari zerbitzu egingo dion bulegoa zabalduko du asteon Elkargik, Elkarrekiko Garantia Elkarteak. Ibargarai kaleko 30. zenbakian egongo da bulegoa eta bihar, hilak 27, egingo dute inaugurazio ekitaldia. Ekitaldi hori Miguel Altuna institutuan izango da, 12:00etan. Han egongo dira, besteak beste, Elkargi EGEko lehendakari Victoriano Susperregi eta Jesus Alberdi Elkargi EGEko kontseilari ordezkaria. Miguel Lazpiur Confebaskeko lehendakaria ere egongo da irekiera ekitaldian eta hitzaldia egingo du.

BERGARA | AFARIA ANTOLATU DUTE EGUN HORRETARAKO

## Berriketaren egitasmoaren balorazioa egingo dute hilaren 30ean

Berriketaren egitasmoaren ikasturteko azken txanpa da eta balorazioak egiteko ordua iritsi zaie. Horretarako afaria egingo dute, eta Bergaran dauden 11 berbalagun taldeetako partaideak, egitasmoaren antolatzaileak eta nahi duen edonor joan daiteke. Afariaren helburuak dira Berriketaren egitasmoaren parte hartu duten kideak berriz elkartzea, egitasmoaren balorazioa egitea eta afariaren gozatzea. Afaria ekainaren 30ean Bergarako Oxirondo elkartearen egingo dute. Joan nahi duenak izena eman dezake Jardun elkartearen (943 76 08 19/943 76 36 61) edo [berriketaren@topagunea.com](mailto:berriketaren@topagunea.com) helbidean.

## Hitzorduak



## NAFARROA ETA HUESCAKO PIRINIOETARA IRTEERA ANTOLATU DUTE | Antolatzaileak, Elgetako Egoki elkarteak, zabalik dauka izenematea

Pirinioetara irteera antolatu du Elgetako Egoki kirol elkarteak uztailaren 8rako eta 9rako. Izenematea zabalik dago ekainaren 28ra arte, eguaztana, udal-etxean.

Nafarroako eta Huescako Pirinioetako paraje ikusgarri batzuetara joango dira. Hiru Erregeen

Mahaia igoko dute lehenengo egunean, zapatuan, eta Ezkaurre eta Zuriza artean, Huescan dagoeneko, ibilaldia edo arroilen jaitziera egingo dute bigarrenegun.

Prezioa 40 euro da, eta garraioa eta mendi-aterpean egun erdiko egonaldia hartzen ditu.

## ANTZUOLA |

• **Zure etxebizitza aurkitu delako Internet ikastaroa**  
Internetez etxebizitza bilatzeko mintegia emango dute hilaren 29an, eguna, KZgunean, 18:00-19:00.

## ARAMAIO |

• **Adobe Acrobat Reader programaren inguruak**  
Adobe Acrobat Reader programa erabiltzen irakatsiko dute gaur, astelehena, KZgunean, 18:00-20:00 orduetara.

## BERGARA |

• **Berriketaren programako afaria egingo dute**  
Berriketaren programak ikasturtea bukatu du, eta antolatzaileek –Jardun, Bergarako AEK, Udala Euskaltegia eta Udala– balorazioa egingo dute. Lagunartean egingo dute hori, hilaren 30erako antolatu duten afari baten. Edozein herritar joan daiteke. Izena emateko, jo Jardun elkartera.

• **San Martzial egunaren gainerako oharrak**

San Martzial egunerako mahaia eta aulkiak alokatzeko modua dago gaur, astelehena. Horretarako azken eguna da. Interesa dutenek kultura etxera joan behar dute, 17:00etatik 20:00etara bitartean. Mahaia eta aulkiak uztailaren 1ean, zapatua, jaso behar

dira San Martzialgo kantina ondoan, 17:00etatik 20:00etara.

• **Jardunen hainbat ekintzarako aurre-matrikulazioa**  
Datorren ikasturterako ekintzak antolatzen hasia da Jardun, eta aurre-matrikulazio epea zabaldu dute uztailaren 7ra arte. Bertso eta trikiti eskolak, Txapligu eta Txiskrilabi taldeen ekintzak, Berriketaren, euskara ikastaroak... daude. Argibideak, 943 76 08 19 telefono zenbakian.

• **Herriko odol-emaileei etzirako dei egiten diete**  
Odol-ateratzeak egingo dituzte etzi, eguaztana, Seminarioko lokaletan, 18:30ean.

• **Txalaparta ikastaroa antolatu du Jardun elkarteak**  
Txalaparta ikastaroa emango dute uztailaren 10etik 12ra eta 17tik 19ra. Arrizuriaga jauregian izango dira eskolak 19:00etatik 20:30era. Matrikula 18 euro da, 15 ikasle, langabe eta Jarduneko bazkideendako. Izenematea zabalik dago Jardunen bulegoan (943 76 36 61 da telefonoa).

• **Posta elektronikoa erabiltzen ikasteko aukera**  
Posta elektronikoa erabiltzen irakatsiko dute bihar, martitzena, KZgunean, 09:00etan.

• **Gazte Informazio Gunearen udako ordutegia**  
Uztailaren 1etik aurrera, honako ordutegia izango du Gazte

Informazio Guneak: eguenean, 09:00-14:30 eta 16:00-20:00; eta egubakoitzetan, 09:00-14:30.

## DEBAGOIENA |

• **Udako Euskal Unibertsitatearen ikastaroak**  
Udako Euskal Unibertsitateak udako ikastaroak antolatu ditu dagoeneko, eta horren gaineko informazioa [www.ueu.org](http://www.ueu.org) webgunean dago.

• **Aretxabaletako eta Eskoriaztako aisialdi programa**  
Aretxabaletako eta Eskoriaztako gazteria sailek uztailaren 25era arte luzatu dute Udaero udako aisialdi programaren izena emateko epea. Datorren asteburuan, gaztelekuetan eman daiteke izena.

## OÑATI |

• **II. Gaztetxe Eguneko bazkarirako txartelak**  
II. Gaztetxe Eguna ospatuko dute uztailaren 1ean, zapatua, Eteon. Bazkaria egingo dute, eta txartelak erosteko azken eguna etzi, eguaztana, duzue. Pako eta Arrano tabernetan daude, 5 eurotan. Horrez gain, etxafuegoak, triki-bertso poteoa, jokoak, manifestazioa eta musika izango dituzte.

• **MSN Messenger programaren gainerakoak**  
Ikastaroa emango dute hilaren 28an eta 29an KZgunean, 09:00etatik 11:00etara.



**Ikus itzazu argazkiak, astero, Asteleheneko Goienkarian!**

**UDAKO ARGAZKIEN ASTELEHENEKO GOIENKARIA II. LEHIAKETA**

# Erakuts egizkiguzu zure udako argazkiak

**...eta hiru sari bikainetako bat irabazi ahal izango duzu!**

**Argazki guztiak fotoblog honetan: [www.goiena.net/blogak/argazkiak](http://www.goiena.net/blogak/argazkiak)**

**Har ezazu parte!**



## Baldintzak

- Udako argazkiak izan beharko dute: aurtengoak edo beste uda batekoak.
- Inoiz argitaragabeak.
- Koloreetan zein zuri-beltzean.
- Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du (ez da adin mugarik izango).
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Argazkiak jasotzeko epea zabalik dago 2006ko irailaren 18ra (astelehena) arte.
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (horrela izanez gero, paperean erreproduzitzeko moduko bereizmen eta kalitatearekin).
- Argazkiak bidali ahal izango dira e postaz [argazkiak@goiena.com](mailto:argazkiak@goiena.com) helbidera edo Goienaren egoitzaren batera ekarri.
  - Arrasate: Saiolan eraikina, Nafarroa etorbidea 2, 20500 Arrasate.
  - Arrasate: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate.
  - Bergara: Irizar jauregia, Barrenkalea 33, 20570 Bergara.
  - Aretxabaleta: Durana 11, 2. solairua, 20550 Aretxabaleta.

- Egoitzara ekartzekotan gutun-azal batean sartuta (egilearen izen eta abizenekin), CD batean edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta *jpg* formatuan.
- Parte-hartzaile bakoitzak bidali ahal izango ditu, gehienez ere, 5 argazki.
- Argazkiarekin batera adierazi beharko dira: egilearen izen-abizenak eta nondarra den, adina, harremanetarako telefonoa eta argazkiaren deskribapena (noiz eta non ateratakoa den, zer edo nortzuk agertzen diren, eta abar).
- Argazkiak argitaratuko ditugu astero; azken sorta, irailaren 25eko ASTELEHENEKO GOIENKARIAN.
- Urriaren 2ko ASTELEHENEKO GOIENKARIAN aditzera emango dira irabazleen izenak.
- Argazki asko jasotzen baditugu, ez ditugu guztiak argitaratuko. Aukeraketa egingo dugu argitaratzeko. Baina lehiaketarako argazki guztiak hartuko dira aintzat.
- Epaimahaiak baloratuko ditu: gaia, kalitatea, originaltasuna, momentua, bizitasuna..., besteak beste.
- Jasotako argazkiak ASTELEHENEKO GOIENKARIAREN artxiboan geratuko dira, etorkizunean beste erabilpen bat eman nahi bada, betiere egilea aipatuta.

## Sariak



### 1. saria

#### Olympus E-500 reflex

argazki kamera digitala

Bergarako Kiñu argazki dendaren eskutik.

- 8 milioi pixel.

- Bi objektibo aldagarri: Zuiko digital 14-45 mm eta 40-150 mm.

- Flash eta guzti.

- 2,5 pulgadako HyperCrystal LCD pantaila.

2



- **2. saria:** Hoteletan gaua pasatzeko Talon Plan Card txartela.

3



- **3. saria:** bi pertsonarendako afari/bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.

Laguntzaileak:



**GURE AMETSA**  
JATETXEA

ASTELEHENEKO  
**Goienkaria**  
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedun egiteko:

**902 36 38 51**

Astelehenetik egubakoitzera  
09:00etatik 21:00etara

# Iritziak



## Isilpekoak

**943 25 05 02**  
goienkaria@goiena.com

Zerbait esateko daukazula? Deitu edo idatzi e-posta. Zeri txaloak, zeri txistuak... Eta sail honetan aterako ditugu zure komentarioak.

### • Hautsa besterik ez Leintz bailara osoan

Irakurle batek "egunero irentsi beharreko hauts kopuru ikaragarriaz" ohartu digu. Eskoriatzatik hasi eta Arrasateraino, lanengatik dagoen hautsa eta zikinkeria "eskandalagarritzat" hartzen du irakurleak.

"Autobidearen eraikuntzarekin eta Arrasaten aldi berean egiten dabilzan lanek, herritarrei mila eragozpen sortzeaz gain, hauts eta kutsadura izugarria eragiten dute". Konparazio bat egiten du irakurleak: "Utzi autoa garbitu berritan egun bat kalean Arrasaten eta gero zelako zikinkeria geruza daukan begiratu. Hori gure birikek hartzen dutena da, egin kontu horrek osasunari dakarkion kalteaz".



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)  
diruz lagundutako aldizkaria

## Sarean harrapatuta

### Ondo iruditzen zaizu herriak loreekin apaintzea?

Udal batzuek garrantzi handia ematen diete loreei eta urteroko aurrekontuko zati bat bideratzen dute herriko berdeguneetan loreak jartzera. Herri batzuetan balkoieta-ko lore lehiaketak ere egiten dituzte,

herritarrek euren balkoiak loreekin jantz ditzaten. Ondo iruditzen zaizu loreak jartzea herriko txoko ezberdinetan? Hori izan da aste honetan *Goiena.net* webgunean egin duten galdera. Hemen iritzi batzuk.

### DIRUA BESTE EKINTZA BATZUTAN GASTATU

Denak dauka bere neurria. Ondo dago kaleak alaitzeko eta politagoak egiteko Udalak loreak jartzea zelai edo biribilguneetan. Baita lorontzi handiak Oñatiko Udalak egin duen moduan. Hala ere guztiak dauka bere neurria eta pasatzen ari direla uste dut. Oñati osoa jarri dute lorontziez josita. Hasieran plazan bakarrik zeuden, baina orain unibertsite aurrean, parrokia aurrean, Abenida kalean... Mesedez, eskertuko nizuke diru hori gazteentzako ekintzatan edota Olarako ahateen putzua garbitzen inbertituko bazenute.

Miren / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

### LAPURTU EGITEN DITUZTE LORONTZIAK

Arrasaten ere jarri dituzte lorontziak. Polita geratu da baina jendeak lorontziak lapurtu egiten ditu. Herritarra naizen heinean eskertuko nieke lapurrei edo lapurtzeko asmotan dabilzanek ez balute gehiagotan egingo. Izan ere, guztion diruarekin erosten ditu Udalak lorontzi horiek eta guztion kalterako da. Udalari esan ere, behi horrelako loreak jarri eta nolatan erosi ditu lorontzi horiek? Ez al da hobeto lorontzi finkoak erostea?

Jokin / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

### LARREGI JARTZEA GUSTU TXARREKOA DA

Larregikeria eta eskasia, biak dira txarrak. Niri ondo iruditzen zait apaintzea, baina ez daitezela gustu txarrean erori.

Eta bigarren iritzi emaleak dioen moduan, arriskutsua da holakoak ipintzea, bandaloentzat tentazioa direlako, eta noski, horrela diru piloa gastatzen da. Baina penagarria izango litzateke horren beldurratik herrian inbertsioak ez egitea.

Andoni / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

### TURISMOARENDAKO ONURAGARRIA DA

Egia esan, niri asko gustatzen zait herriko kaleak dotore ikustea. Askok alaitzen du herria eta polita geratzen da. Gainera, turismoari begira ere garrantzitsua da. Izan ere, turistek herria polita dela esaten eta zabaltzen badute hobe denontzat!

Bai / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

### LOREAK BAINO HOBE EKINTZAK ANTOLATZEA

Nik uste dut turistek gehiago baloratuko dutela bizirik dagoen herri bat eta ekintza ezberdinek antolatzen dituen herri bat. Horrela gauza gehiago egin dezakete turistek eta gure kultura zabaltzeko bide egokia da. Herria lorez jantzea baino hobea litzateke hori.

Ez / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)


### BERTAKO LOREAK ZAINDU BEHAR DIRA

Ondo dago loreak jartzea, baina bertako loreak izan daitezela, bertan ondo agoantatzen dutenak. Ze zentzu dauka biribilgune baten erdian palmera bat jartzea? Noiz ikusi dira Euskal Herrian palmerak? Edo askotan etxe aurretan eta jartzen diren hesi moduko landare zatar horiek?

Bertakua / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

## www.goiena.net

Ondo iruditzen zaizu herriak eta inguruak loreekin apaintzea?



Zure iritzia eman nahi baduzu jo [www.goiena.net](http://www.goiena.net) webgunera

## Halaxe erantzun digute

Hego Euskal Herrian 11 kontratutatik bat da mugagabea; lan erreformak ezegonkortasuna txikituko du



GERMAN KORTABARRÍA | ELA SINDIKATUA

Erreforma berriak gehiago eragiten du kaleratzearen merkatzean. Hala, kontratu mugagabe gehiago lortzen badira ere, ahulagoak lirateke, erraztu egiten da eta lanetik bidaltzea. Orain dela 8 urteko erreformak ere denbora baterako kontratuak murriztu gura zituen, eta ez zen gertatu.



ENARA MINGEZ | LAB SINDIKATUA

Ez da argi geratzen zer gertatuko den uztailean kontratuekin. Kaleratzeagatik kalte-ordaina merkatuko du alde batetik. Bestetik, enpresei hobariak emango zaizkie diru publikotik kontratuengatik, eta azkenik, Gizarte Segurantzako kotizazioak txikituko egingo ditu.



ELENA MONDRAGON | ARRASATEKO INEM-EKO ZUZ.

Guk esperantzak daukagu erreforma berrian, finkoa izateko eskubidea kontuan hartzen du eta. Batez ere, denbora bat lan baten egin duenak postu finkoa lortzeko bidea jartzen du. Lanikuskaritzatik ere zaintza handiagoak ezarriko dira egoera irregularrak kontrolatzeko.




EDUARDO ZUBIAURRE | ADEGI-KO LEHENDAKARIA

Lan kontratu egonkorra proposatzen du ADEGIk; mugagabea bai, baina behar izanez gero deuseztatzea errazagoa izango litzatekeena, eta beti adostutako kalte-sariak ordainduz. Malgutasuna eskatzen dugu. ADEGIIn ere ez dugu gustuko lan merkatuan dagoen behin-behinekotasuna.

## Egunkarietako harribitziak

**BASOEN BARRUNBEAK**  
Gizakiaren jardueren ondorioz, basoak asko aldatu izan dira urteekin, eta bertako eta kanpoko espeziek elkarrekin bizitzen ikasi dute. Oreka soilik bermatuko du haien iraupena. Basogintza sektorea krisian dago, eta gerora horri buelta eman nahi diote. Bestalde, diputazioak zuhaitz hostozabalen aldeko politikak garatzen ari dira.

'Berria'  
2006-06-25



## GIPUZKOAKO UR KONTSUMOAK MUGA LEGALA GAINDITZEN DU

Gipuzkoan etxeko ur kontsumoaren batez bestekoa 135 eta 200 litro artean dago, pertsonako eta eguneko. Bada, Eusko Jaurlaritzak zehazten du etxeko uraren kontsumoaren batez besteko normalak egon behar duela 130 litro kubikoren azpitik (pertsonako eta eguneko). Uren lege berriak esandako neurritik gorako litro bakoitza sei zentimo garestitzen du.

Hala eta guztiz ere, Gipuzkoan badira hainbat herri neurri hori nabarmen gainditzen dutenak, Gipuzkoako Ur Partzuergoaren datuen arabera. Baina ez da Debagoienaren kasua. Gurean, gehien kontsumitzen duen herria Oñati da (128 litro) eta gutxien, Leintz Gatzaga (63 litro). Gaur egun uraren faktura duela bi urte baino %30 garestiagoa da.

'Noticias de Gipuzkoa'  
2006-06-25



## Tira, tira...



Montxo 'Berria' | 2006-VI-25

## Egunkarietan irakurri dugu

### 'Noticias de Gipuzkoa'

GOGORRA, LUZEA ETA ZAILA

Prozesuaren kontrako apusturik zitalena PPrena da. Zapateroren ekimena zapuzteko ahaleginean dabil. Badakite Zapaterok asmatzen badu eskumaren etorkizuna baztertuta geratuko dela, denbora luzez boterea berreskuratzeko aukerarik gabe. Hala, balekoa da politika antiterrorista erabiltzea, ETA berera itzultzea nahi izatea...

Editoriala  
2006-06-25

### 'Gara'

NORBERE HERRIALDEAN EZIN IBILI

Euskal Herrian eskubiderik oinarritzekoak -bizilekuarena, zirkulazioarena, batzar-tearena, adierazpenarena...- modulatu egiten dira bi estatuen nahien arabera eta sorari atea jartzen saiatzen dira. Nahiz eta mugimendu soziala eteten saiatzen diren bakoitzean porrot egiten duten. Atzo errepikatu egin zuten.

Editoriala  
2006-06-25

### 'Deia'

EKOLOGIA ETA EKONOMIA

Kantauriko antxoaren biomassaren egoera larria adierazten duten datu zientifikoak eta azkeneko kanpainaren datu pobreak nahikoa dira, antza, EBK, behingoz, arrantza ixteko. Hala, etorkizuneko belaunaldiendako bizirik iraun dezan. Ekologiaz ari gara Ekonomia bermatzeko, baina badirudi agintariek ez dutela epe laburrera baino ikusten.

Editoriala  
2006-06-25

### 'Berria'

TEOLOGOAK

Bushek diskurtsoetan gehien erabiltzen dituen hitzak: *askatasuna, karakterra* eta *Jainkoa*. Arazo sozialez eta pobreziaz ari denetan, *konpasioa* edo *karitatea* aldarrikatzen ditu, *ez justizia*. (...) Michael Gerson zen mistika eufemistiko horren asmatzailea. (...) Ez da politikoa, ez idazlea, ez da kazetaria. Teologia ikasketak ditu.

Anjel Lertxundi  
2006-06-25

## Zorroztailea

## Zaramaren erdian



*Badirudi batzuek errauste planta Kontxako badian egin nahi dutela. Guk inork erabili ez duen irizpidea hartu dugu kontuan: herriguneetatik 2.000 metrora jartzea. Irizpide hori betetzen duten hiru leku baino ez daude, eta bi Landarbason. Donostiako Udal Gobernuari ez zaio gustatzen, baina beste erremediorik ez dugu izan (Denis Itxaso, Donostiako Ingurumen zinegotzia).*

'Berria' | 2006-06-24

Juan Luis Azkarate

*Beti galdetzen nabil, zaramaren erdian, hemendik nola ateratu, abesten zuen 80ko hamarkadan Roberto Mosok, Zarama taldeko frontman-ak. Zaramaren arazoa pil-pilean dago Gipuzkoan. PNV-ren eta PSEren arteko tirabira luze baten ondoren, ostiralean onartu zuen Donostiako Udalak, pleno istilutsu batean, Gipuzkoak urtero sortzen dituen 400.000 zarama tonarako erraustegia Landarbason kokatzea, Aiako Harria Parke Naturalaren eta Añarbeko urtegiaren ondoan.*

Odon Elorzak argudiatu du behartuta hartu duela erabaki hau, Irungo San Marcialgo zabortegia abenduan behin betiko itxiko dela eta, ondorioz, inongo mankomunitatek ez zuelako bere gain hartzen Donostiako zaborra. Eztabaida luze honetan, balizko kokaleku asko irten dira, eta baita ere, erraus-

ketaren kontrako mugimendu asko. Batek ez daki mugimendu hauek benetan errausketaren kontrakoak direnik ala kokapen zehatz baten kontrakoak. Hau da, aldarrikapena gehiago izan da "hemen ez", "inon ez" baino.

Konpostajea eta birziklaia aipatzen dira soluziobide. Kontua da urtetik urtera gero eta zabor gehiago sortzen dugula gipuzkoarrok, nahiz eta birziklaia ere gora egin. Hor kontsumitzeko patroi berriek erru handia dute. Gero eta gehiago kontsumitzeaz gain, produktuek gero eta *packaging* aparatosoagoa ekartzen dute. Banatzaileek alde batetik, eta kontsumitzaileok, bestetik, esfortzu txiki bat egin beharko genuke plastiko eta kartoi gutxiago erabili aldera.

Uraren gehiegizko kontsumoa zigortzeko zerga berri bat jarriko da laster indarrean. Zaborraren gehiegikeriak, aldiz, ezin dira kontrolatu horren erraz. Administrazioak, arautuz, eta kontsumitzaileok, zer erosi hobeto hautatuz, badugu zereginik.

**"Esfortzu txiki bat egin beharko genuke plastiko eta kartoi gutxiago erabili aldera"**

**"Uraren gehiegizko kontsumoa zigortzeko zerga berri bat jarriko da. Zaborraren gehiegikeriak, ezin dira erraz kontrolatu"**

# KIROLA

- Xakean, Donostiako selekzioa Debagoienekoari gailendu zitzaion | 16
- Futbolean, Antzuolak entrenatzaile berria aurkeztu du | 18



Esther Uriarte  
Aramaioko  
mendizaleak Mont  
Blanceko irteeraren  
berri eman digu | 19

## BIKE TRIALA



JOSETXO ARANTZABAL

Bizikletarekin amaitzeko, Benitok boluntarioak eskatu zituen; haiek lurrean etzan eta Benito bizikletarekin aritu zen.

**BIKE TRIAL** | BENITO ROS MUNDUKO TXAPELDUNA ARRASATEKO SAN JUANETAN IZAN ZEN

# Euria egin arren, Benito Rosek ausart ekin zion trial erakustaldiari

*Azken unean, bike trial erakustaldia zezen-plazatik Garibai etorbidera aldatu zuten antolatzaileek*

*1,33 metroko jauzia egin zuen Rosek, marka pertsonal berria izan arren ez da kontuan hartuko.*

Arantzazu Ezkibel

Benito Rosek ez zuen hutsik egin eta jendea aho zabalik utzi zuen zapatuan San Juan jaien barruan antolatutako erakustaldian.

Arratsaldea eurtsua izan zen eta hori dela-eta erakustaldia bertan behera geratzekotan egon zen. Hala ere, Benito Rosek, ger-

turatutako ikusleen gozamenerako, ahalegina egitea erabaki zuen. Arratsaldeko 6etan Garibai etorbidean erakustaldia egiteko beharrezkoak ziren material eta oztopoak jartzen hasi ziren.

Ordurako, jende ugari bildu zen Garibain munduko txapeldunaren erakustaldia noiz hasi-

ko zain. Jendeak pazientzia osoz itxaron zuen euripean Benito Ros noiz iritsiko.

### LEHENENGO BIZIKLETA

Erakustaldiari hasiera emateko, Rosek bizikleta hartu zuen. Trialako bizikletarekin, egurrezko oztopo ezberdinak gaintitu zituen. Euriagatik, antolatutako zirkuitua bustita zegoen: hori dela eta, erortzeko arriskua handiagoa zen.

Azken sei urteetan zergatik den munduko txapelduna argi utzi zuen nafarrak. Bizikletarekin salto egin eta airean noranzkoz aldatu zuen, berriro ere lur hartzerakoan egurrezko maldan gupila irristatzeko arriskuarekin. Ariketa batzuetan, Benito Rosek oina lurrean jarri behar izan zuen, oreka mantendu ahal izateko.

### 1,33 METROKO SALTOA

Rosek 1,30 metrotan du gaur egun igoera saltoko errekorra. Zapatuan, 1'33 metroko saltoa egin zuen, baina Federazioko inor ez zegoenez, errekor berria ez da

kontuan hartuko. Lehengoan jarraituko du errekorrak, hortaz.

Bi modutara egin zituen Rosek salto horiek: lehenengoan, abiada hartu eta kamioneta gainera egin zuen salto. Baina bigarrenean, abiadarik hartu gabe, bultzada hutsez igo zituen 1,30 metroak. Ikusgarria izan zen.

**Motor gainera igota ere egin zuen erakustaldia txapeldunak**

**Boluntarioak lurrean etzan ziren, Benito Ros bizikletarekin gaintetik pasatzeko**

### JENDEAREN PARTE-HARTZEA

Bizikletarekin amaitzeko, Rosek jendearen parte-hartzea eskatu zuen. Boluntarioak lurrean etzan eta ariketa ezberdinak egin zituen nafarrak.

Azkenik, motorra hartu zuen erakustaldia amaitzeko. Motorrarekin lasterketa txikiak egin zituen, eskulekuan jesarrita gidatzen zuen bitartean. Boluntario bat ere hartu zuen motorrean gidari lanak egiteko. Trialaz gozatzeko aukera paregabea izan zen.

BIKE TRIALA

BENITO ROS | ABARTZUA (NAFARROA)

## "Bizkorra eta indartsua izan behar da trialean"

Arantzazu Ezkibel

**Benito Rosek 14 urte daramatza bizikletaren gainean askotariko oztopoak gainditzen. Zapatuan, Arrasateko jendearen aurrean zer-nolako trebezia duen erakutsi zuen.**

**Erakustaldia bertan behera gertzekotan egon da, baina azkenean egitea erabaki duzu.**

Bai. Egia esan, ni ez naiz euriarekin askotan aritu, baina argi nuen hona hurbildutako jendeak erakustaldia egitea merezi zuela. Eguraldia oso txarra izan arren, ahal dudana egitera ateratzen naiz. Betiere, jendea ikusteko prest badago. Eta gaurkoan, Arrasaten, jendea arratsalde guztian izan dut zain eta azkenean erakustaldi osoa egitea lortu dut. **Zer-nolako giroa egon da?**

Esan dudana bezala, zaleengatik egin dut erakustaldia. Jende asko etorri da triala ikustera eta horregatik ahalegin berezia egin dut.

Lurra bustita dagoenean, alde batetik ariketa gutxiago egiteko

aukera izaten da eta bestetik, ariketak egitea gehiago kostatzen da. Egia esan, egin duen eguraldia kontuan hartuta, oso giro ona egon dela iruditu zait.

**Ze ezaugarri izan behar ditu bike trialeko kirolari batek?**

Bereziki, kirol hau gogoko izan behar du, eta gauza berriak ikasi eta burutzeko izugarritzko gogoia izan.

Ezaugarri fisikoei dagokienez, bizkorra eta indartsua izan behar du trialean dabilenak. Horiez gain, erresistentzia ere landu behar du. Ez du errepideko txirrindulariek besteko erresistentziarik izan behar, baina hori ere landu behar du. Azkenik, teknikak izugarritzko garrantzia du, asko entrenatu

beharra dago. Pixkanaka, ezaugarri ezberdinak eskuratzen dira. **Zer esango zenioke trialean hasi berria den bati?**


Hasiberrian, oso zaila den kirola da triala. Gaur egun, nik ez dut inolako arazorik ariketa ezberdinak egiteko, baina hasiberri batentzat espalo bat igotze hutsak izugarritzko lana du.

Oraindik kirol honetan jarraitzen badut, oso kirol osasuntsua delako da. Gaztetatik trialean ibiltzeak gaitasun asko gararazi dizkit; besteak beste, oreka. Fisikoki ere indartsu egoteko balio du trialean aritzeak.

Beste alde batetik, diru gutxi mugitzen duen kirola denez, giroa berezia izaten da. Guztiok elkar ezagutzen dugu eta bata besteari laguntzeko prest gaude.

**Nola entrenatzen zarete?**

Teknikak garrantzi handia duen kirola denez, bizikletan asko ibiltzea komeni da. Denboraldi bat ezer egin gabe egonez gero, konfiantza galtzen da. Beraz, egunero entrenatzea komeni izaten da. Egun normal batean ez ditut gaur egin ditudan gauzak egiten, gaurkoa erakustaldia izan da-eta.



A.E.

**"Teknika ona izateaz gain, bizkorra eta indartsua izan behar da trialean"**


**Bizikletaren eta motorraren artean ze alde dago?**

Ez dira gauza bera. Bizikletan, indar fisiko behar da eta motorrean, berriz, motorrak dituen baliabideak ezagutu behar dira.

**Ze helburu duzu denboraldirako?**

Aurten, jokatu ditudan txapelketa guztiak irabazi ditut. Espainiako Txapelketa irabazi berri dut eta uztailean hasiko den Munduko Txapelketa berrestea izango da nire helburua.

### • HORRELA IKUSI ZUTEN BIKE TRIAL ERAKUSTALDIA IKUSLEEK



NORA ETA GARAZI | ARRASATE

Argazkiko bi neskei bizikletan ibiltzea gustatzen zaie. Baina ez dira ausartzen Benito Rosek egin dako ariketak egitera. "Bizikleta gainean *surfing* erako ariketak egin ditu. Ondo egon da. Baina guk ez dugu halakorik egiten. Derrapatze batzuk egiten ditugu", azaldu ziguten Nora eta Garazik.



EIDER ETA JULENE | ARRASATE

Eider eta Juleneri asko gustatu zitzaizen zapatuko erakustaldia. Baina ez ziren lurrean etzan Benito Rosek gainera salto egiteko. "Saltoa polita izan da, baina gu ez gara lurrean egon. Zutik askoz hobeto ikusi dugu. Gehien *surfing* erako ariketak gustatu zaizkigu", esan ziguten amaieran.



EURI, NURIA, NEREA ETA MIKEL | ARRASATE

Argazkiko koadrila animatu zen Benito Rosen saltoa lurretik ikustera. Beldur apur batekin, baina lurrean etzan ziren. "Laurok lurrean etzanda egon gara. Egia esan, beldurra ere izan dugu. Gainera, bizikletarekin zapaldu egin gaitu apur bat. Baina orokorrean, eguraldi txarra egin arren, oso ondo pasatu dugu erakustaldian", adierazi ziguten, lasaitu ondoren, Euri, Nuria, Nerea eta Mikelek.



## Garbiketetan profesionalak gara!

943 71 48 45 [www.hemen-garbiketak.com](http://www.hemen-garbiketak.com)

Profesional maila

# Leitzak eta Belokik irabazi zuten Uarkapen

*Partidu luze eta gogorra jokatu ostean, mendean hartu zituzten Olaizola eta Otxandorena: 22-17*

Mireia Bikuña

San Juan jaien aitzakian, pilota profesionalaz gozatzeko aukera izan zen atzo, domeka, Uarkapen. Eta goi mailako partidua jokatu zuten Aimar Olaizola, Iñaki Otxandorena, Iñigo Leitzak eta Ruben Belokik. Azken haiek nagusitu ziren: 22-17.

**TANTO LUZEAK**

Partidu hasieratik ikusi zen norgehiagoka luzea eta gogorra izango zela. Hala, partiduan guztira 811 pilotakada eman ziren.

Lehen tantoa urdina izan zen. Leitzak eta Belokik alde hartu zuten markagailuan: 1-6 jarri ziren aurretik. Hasierako tanto haiek oso luzeak izan ziren. Bikote gorriak ez zuten amore eman eta tanto batera jarri zen bizpahiru aldiz. Olaizola eta Otxandorena aurretik lehen aldiz 13-12koarekin jarri ziren.

Baina 15. tantoan berdinketa lortu eta gero, Leitzak eta Belokik hartu zuten aurre berriro ere. 15-19ra zabaldu zuten markagailua.

**TANTOA ERREPIKATU**

Markagailua 19-17 Leitzak eta Belokiren alde zegoela, tantoa



JOSETXO ARANTZABAL

Iñigo Leitzak lau tanto egin zituen sakez.

errepikatu beharra egon zen, Otxandorena sakea egitera zihoala, Belokik trabatu egin baitzuen.

Amaieran, bada, Leitzak eta Beloki nagusitu ziren Uarkapen

jokatutako norgehiagokan. Partidu nagusiaren aurretik beste lehia bat jokatu zen. Beloki II.ak eta Argotek 22-11 hartu zituzten mendean Saralegi eta Beobide. Partidu laburra izan zen.

• ETB KANTXA LAU T'ERDIKO TXAPELKETA



ARTIBOIA

**ELEZKANO ETA GONZALEZEK FINALA ESKURATU DUTE**

ETB kantxa lau t'erdiko txapelketako finalistak Ollo eta Gonzalez (nagusien mailan) eta Peñas eta Elezkano (kadete mailan) izango dira. Egubakoitz iluntzean, Elezkanok 22-14 hartu zuen mendean Perez. Bizkaitarrek partidua polita jokatu zuten. Gonzalez andoaindarra, berriz, 22-8 gailendu zitzaion Irureta beasaindarrari. Gonzalezek 7 tanto egin zituen sakez eta 29 minututan partidua samur irabazi zuen.

• DEBARRO PILOTA TXAPELKETA



JOSEBA ZUBIZARRETA

**DEBAGOIENDARRAK NAGUSI DEBARROKO FINALETAN**

Senior mailan, Arrasateko Axpek eta Uribarrenek –argazkian– Aretxabaletako Errasti anaien aurka jokatu dute. Kadeteetako finalean, Arrasateko Zubizarreta eta Bolinaga Eskoriatzako Oartzabal eta Agirianoren aurka lehiatuko dira. Azkenik, Antzuolako Mendizabalek eta Azkaratek gazte mailako finala jokatu dute. Debarro pilota txapelketako finalak uztailaren 9an jokatu dira, Aretxabaletan.

Kontzejupe IV. pilota txapelketa

# Iñakik eta Gorkak irabazi zuten Eskoriatzako Kontzejupe txapelketa

*18 bikotek parte hartu zuten zapatuan jokatu zuten pilota txapelketan*

Mireia Bikuña

Urtero legez, zapatuan jokatu zen Eskoriatzako Kontzejupe pilota txapelketa. San Pedro jaien inguruan antolatzen den txapelketak bosgarren edizioa bete zuen zapatu arratsaldean.

Eta euria eguneko protagonista izan arren, pilota txapelketa giro onean jokatu zen. "Egia esan, zerura begiratuta nahiko kezkatuta geunden hasieran. Baina bikoteak animatu egin dira eta ikusleak ere bai. Giro bikainarekin jokatu da txapelketa", adierazi zigun antolatzaile taldeko kideetako batek.

**18 BIKOTE**

Haur mailan 13 bikotek parte hartu zuten; nagusien mailan, aldiz, bost bikotek.

Lehen fasea ligaxka modura jokatu zen. Haur mailako parti-

duak 16 tantora jokatu ziren; helduenak, aldiz, 22ra. Bikoterik onenak finalerdietarako sailkatu ziren. Ondoren finala jokatu zen.

Hala, final handian Iñaki eta Gorka eta Gracia eta Liher aita-semea aritu ziren. Partidua oso parekatua izan zen; eta Iñaki eta Gorkak irabazi zuten, 22-21. Hirugarren tokian Edorta eta Enrike sailkatu ziren.

Finalak jokatu ondoren sari banaketa ekitaldia egin zuten. Helduen txapelketako lehen hiru bikoteek garaikurra eta txakolina jaso zuten opari.



JOSETXO ARANTZABAL

Euria egin arren, hainbat lagun hurreratu ziren pilotarien lana ikustera.



## San Juan jaiak 06

### SAIO BEREZIA

Martitzenean, ekainaren 27ean, 21:15ean

Eguaztenean, ekainaren 28an, 15:00etan eta 23:15ean.

**Goitb**  
Goiena Telebista

*Ikustekoa!*



JOSETXO ARANTZABAL

Leintz bailarako eta Donostiako taldeak argazkirako jarri ziren; guztira 20 jokalaririk aritu ziren Seber Altuben.

XAKEA | SAN JUANETAKO XAKE TXAPELKETA

# Donostiako selekzioak erraz hartu zuen mendean Leintz bailarakoa

*Talde bakoitzeko hamar jokalaririk elkartu ziren. 20 minutuko partida azkarrek jokatu zituzten Seberren*

Arantzazu Ezkibel

Donostiako selekzioa samur nagusitu zitzaion Leintz bailarakoari San Juan jaietan jokatuak txapelketan; 16-24 izan zen amaierako emaitza. Gipuzkoako hiriburutik etorritako hamar jokalariek maila ezin hobea dutela erakutsi zuten zapatuan Seber Altube plazan.

Euriari aurre egiteko, karpa handi baten laguntza izan zuten

xake jokalariek. Hala, arratsaldeko lau eta erdietan hasi zen xake txapelketa.

## DONOSTIAKO SELEKZIOAK BI MAISU IZAN ZITUEN

Leintz bailarako selekzioan parte hartu zuten jokalariek ondokoak izan ziren, sailkapenaren arabera: Fran Miguel, Andoni Miguel, Luis Angel Ortega, Txema Hernando, Aitor Alcaide, Josu Tornay, Isidro Ruiz, Robe-

ro Villar, Esteban Romero eta Cayetano Rayo. Donostiarrek, berriz, bi maisu ekarri zituzten Arrasateko San Juan jaietako txapelketara: Iñigo Argandoña donostiarra eta Santi Gonzalez bilbotarra. Beste jokalariek hauek izan ziren: Ivan Muñoz, Luis Olaizola, Eduardo Sanz, Antonio Segovia, Mirian Muñoz,

Iñigo Galartza, Galder Salterain eta Alex Cantabrana.

Lau txandatan banatu zituzten partidak. Txanda bakoitzean, sailkapeneko postuaren arabera elkartu ziren jokalariek. 20 minutuko partida azkarrek jokatu zituzten. Lehenengo, pieza kolore jakin batekin jokatu zuten eta bigarren txandarako kolorea

aldatu zuten. Bi txanda horietako emaitzak hauek izan ziren: lehenengo 3-7 donostiarren alde eta bigarrena 6-4 Leintz bailarako alde.

Hirugarren eta laugarren txandetan talde bakoitzeko lehenengoak beste taldeko bigarrenaren aurka jokatu zuten. Emaitzak 3-7 eta 4-6 donostiarren alde izan ziren.

## LEHENENGO TXAPELKETA

San Juan jaietan selekzioen arteko partidak antolatzen dituzten lehenengo aldia izan zen. Eguraldia kontra izan arren, esperientzia polita izan zela esan digute antolatzaileek.

**Jokatutako lau txandetatik hiru irabazi zituzten donostiarrek**

**Euskadiko eta Gipuzkoako txapelkunak aritu ziren Seberren**

## • HORRELA IKUSI DUTE TXAPELKETA PARTE-HARTZAILEEK




**LUIS ANGEL ORTEGA |**  
LEINTZ BAILARAKO TALDEA

Lasartearra izan arren, Luis Angel Leintz bailarako selekzioan jokatzeko du. "Partida politak ikusi ditugu. Donostiako taldean maila handiko jokalariek daude; Argandoña eta Santi, esaterako".



**JOSU TORNAY |**  
LEINTZ BAILARAKO TALDEA

"Donostiako taldeak samur irabazi digu. Maila handiko jokalariek daude Donostiako taldean, hala, bi maisu dituzte", esan zigun Arrasateko jokalariek. "Giro polita izan dugu", gaineratu zuen.



**FRAN ETA ANDONI MIGUEL |**  
LEINTZ BAILARAKO TALDEA

"Partida politak ikusi ditugu. Donostiako selekzioak jokalaririk onak ditu, baina guk ere talde polita sortzea lortu dugu. Txapelketa gogorra izango da", adierazi ziguten Aretxabaletako Fran eta Andoni anaiek. "Lehenengo aldia da horrelako txapelketa bat antolatzen duguna", esan ziguten aretxabaletarrek.



**IÑIGO ARGANDOÑA ETA SANTI GONZALEZ |**  
DONOSTIAKO SELEKZIOA

"Taldea polita etorri gara Donostia aldetik. Gu Euskadiko eta Gipuzkoako txapelkunak gara, beraz, Euskadiko onenatarikoak garela esan daiteke", esan zuten Iñigo eta Santi donostiarrek. "Giro polita izan da txapelketan. Hala ere, erraz irabazi diogu Leintz bailarako taldeari", adierazi zigun Iñigo Argandoñak.



# Iruditan



ALOÑA MENDI

**Oñatiko bira.** 16 pertsona aritu dira Aloña Mendik antolatutako Oñatiko biran, Oñati inguruko mendietan. Zapatu goizaldean atera ziren mendizaleak Oñatitik. Elorregin (San Prudentzio) Urrexola aldera hartu zuten, gero Elgeara joateko. Arabako mendietatik Urbiara iritsi ziren zapatu arratsaldean. Han, kanpin dendetan eman zuten gaua. Atzo goizean Urbiatik atera eta Legazpiko gurutzera joan ziren, mendiz mendu berriro ere Elorregira iritsi arte. Giro politean egin zuten ibilaldia mendizale oñatiarrek.



JOSE LUIS BEITIA

**Ipintzako futbol txapelketa.** Zapatuan jokatu ziren nesken kadete mailako finalak. Potx taldeak irabazi zuen finala, 9-0, Soralezaren aurka. Kontsolazio finalean, Boto-bekutz gailendu zitzaion A Ze Flaxa taldeari (3-1). Argazkian, Potx taldeko jokalariek.



ARANTZAZU ESKIBEL

**Plazako pilota txapelketa.** Frontoiko lanak tarteko, barikuko partiduak Zubikoan jokatu ziren. Kadeteetan, Urkizu-Lizarribarrek 22-4 irabazi zuten Perez-Resustaren aurka. Gazteetan, Albarado-Berruetak 22-13 irabazi zuten Etxeberria-Razkinen aurka.

**gehitu**

**EUSKAL HERRIKO GAY, LESBIANA,  
TRANSEXUAL ETA BISEXUALEN ELKARTEA**

Arrasate 51, 3. esk. Donostia 20005 943 468 516 [www.gehitu.net](http://www.gehitu.net) [info@gehitu.net](mailto:info@gehitu.net)

InfAsis  
Informazioa eta Laguntza 902 200 096  
[infasis@gehitu.net](mailto:infasis@gehitu.net)

ALOÑA MENDIKO FUTBOL SAILAREN BATZAR OROKORRA | DENBORALDIAREN BALORAZIO POSITIBOA EGIN ZUEN BATZORDEAK EGUBAKOITZEAN

# Bazkide kuotak igotzea onartu du Aloñako futbol batzordeak

*Bazkide kuotek bi eta bost euro arteko igoera izango dute denboraldi berrian*

Mireia Bikuña

Aloña Mendiko futbol sailak batzar orokorra egin zuen egubakoitzean urteko balantzea egiteko.

Eta hartutako erabakien artean bat da azpimarragarria: denboraldi berrirako bazkide kuotak igotzea onartu zuten. "Azken 13 denboraldietan ez ditugu kuotak igo. Baina orain beharrezkoa dela ikusten dugu. Diru sarrerak gero eta txikiagoak dira", aipatu zuen futbol saileko presidente Jabi Azpiatzuk.

Bada, bazkide kuotei aplikatuko zaien igoera bi eta bost euro artekoa izango da. Bazkide babesleek 75 euro (aurten, 72 euro) ordainduko dute; bazkideek, 60 euro (orain arte 55 euro); juniorek 40 euro (38 euro); gazteek, 18 eta 22 urte artekoek, 30 euro (28 euro); eta azkenik, haurrek 5 euro (orain arte 3 euro) ordaindu beharko dute.

Ohiko batzarrerara hurbildutako bazkideek ez zuten inolako trabarik jarri futbol saileko batzordeak proposatutako kuoten igoera onartzeko orduan. Bada, aho batez onartu zen.

## KIROL ARLOA

Bestelakoan, denboraldiaren balorazioa egin zuten egubakoitzeko batzarrean. Eta bai kirol arloan, zein arlo ekonomikoan balantze positiboa egin zuten.

Kirol arloari dagokionez, talde guztiek egindako lana azpimarratu zuten; batez ere, preferente mailako denboraldia. Aldiz, nahiko triste agertu ziren gazte mailako taldeak kategoria galdu zuelako.

## ARLO EKONOMIKOA

Diru kontuei dagokienez, galera txikia izan du aurten futbol sailak: 106 euro.

Sarrereren atalean, igoera nabarmenena hiru partidak izan dute: sarrereren salmentarena, babeslearena eta publizitatearena.

Gastuen atalean, berriz, kirol materiala, bidaiak eta jokalarien sarien partidak dira nabarmen igo direnak.



Denboraldiko jokalaririk onenak -argazkian- afariaren ondoren jasotako sariekin.

ARATZ LOSADA

**Kirol arloan balantze positiboa egin zuten batzordeko kideek**

**Arlo ekonomikoan 106 euroko galera izan arren, pozik amaitu dute denboraldia**

## Afariaren ondoren sariak banatu zizkieten jokalariei

Urtero egiten duten moduan, talde guztietako jokalaririk onenari sariak banatu zizkieten egubakoitzean.

Gorengo mailan lau sari banatu ziren. Komenari saria, Banco Guipuzcoanok eskainia, Julen Barrenak eraman zuen. Erregulartasunaren saria, Sukia enpresak eskainia, Xabier

Elgarrestak jaso zuen. Roberto Idigoras izan da, bestalde, denboraldiko golegilerik onena. Galizia tabernak emandako saria eraman zuen. Azkenik, preferente mailako kirolzale-letasunaren saria Iker Maiztegiarentzat izan zen.

Beste mailetan kirolzale-letasunari eskainitako sariak banatu ziren. Gazteen

Euskadiko Ligako mailan Xabier Agirre izan zen saritua; kadeteen ohorezko mailan Alberto Millas; haurren mailan Jokin Arroio; 8nako haurren mailan Gorka Lazkano; emakumeen mailan Maialen Lizarralde; eta azkenik, 8nako emakumeen mailan Arantzazu Sagarzazu saritu zuten.

## 2. erregionala

### Andoni Azkargortak zuzenduko du Antzuola datorren denboraldian

Arantzazu Ezkibel

Andoni Azkargorta izango da Antzuola futbol taldeko entrenatzaile berria datorren denboraldirako. Andoni antzuolarra da, baina azken lau urteak etxetik kanpo eman ditu, ibarreko beste futbol talde batzuetan.

#### HELBURUA IGOERA

Denboraldi berriari begira, Antzuola futbol taldearen helburua 1. erregionalera igotzea izango da. Andonik zera esan zigun: "Gure asmoa mailaz igotzea izango da, igotzeko bezalako taldea daukagu-eta".

Azkargortak Antzuolako herriarekin zorra duela esan digu. Orain urte batzuk, Antzuolako entrenatzailea zela, mailaz igotzeko aukera izan zuten, baina azkenean ez zuten lortu. Hori dela-eta, arantza txiki bat duela gehitu du Azkargortak.

#### GORDOBILEKIN LANEAN

Azken lau urteetan Igor Gordobilekin batera aritu da Azkargorta entrenatzaile lanetan, lehenik Bergaran eta gero Mondran.

Bergarako taldea 2. erregionaletik 1. erregionalera igotzea lortu zuen Azkargortak. Orain etxeko taldearekin saiatuko da.



Andoni Azkargorta eta Jose Angel Fernandez aurkezpen egunean.

ANTZUOLA KIROL ELKARTEA

## Labur

### Bergaran Neka Galan izango da entrenatzailea

Bergarako lehen taldearen ardur hartuko du Neka Galan arratsatearrak datorren denboraldira begira.

Josu Zubiaren laguntzaile lanetan aritu da Galan azken urte honetan. Hainbat arrazoi direla-eta, Josuk ez du Bergarako 1. erregional mailako taldearen buru jarraituko. Hala, Galan lehenengo entrenatzaile postura pasatuko da.

Aurtengo denboraldian, igoera lortzea izan dute helburu mahoneroek. Igoera fasea jokatuko dute Euskaldunaren aurka, baina azkenean igoera barik geratu dira Bergarakoak. Datorren denboraldian ere helburu bera izango dute: preferente maila.

Esther Uriarte aramaioarrak orain gutxi bete zituen 40 urte. Hori dela-eta Marimendi elkarteak antolatu duen mendi irteeran parte hartu ahal izango du.

Marimendiko lagunak uztailearen 15ean abiatuko dira Suitzara. Gero, uztailearen 20-23 bitartean Mont Blanc gailurra egitea aurreikusi dute. Guztira 25 emakume

joango dira Mont Blancera, 40 urtez gorako emakumeen presentzia kirolean aldarrikatzeko asmoarekin. Estherrek irteeraren nondik norakoak esan dizkigu.

ESTHER URIARTE | MENDIZALEA

# "40 urteko emakumeak ere horrelako ibilaldiak egiteko gai gara"

Arantzazu Ezkibel

**Espedizio hau egiteko ideia nola sortu zen?**

Egitasmoaren bultzatzailea Marian Arin izan da. Marian iaz Mont Blancera aterpetxe batean izan zen. Bertan konturatu zen ez zegoela andrerik eta horren harira zerbait egitea pentsatu zuen. Marianek bere lagun talde bati proposatu zion irteera egitea. Nik lagun baten bidez izan dut irteeraren berri.

**Mendizaletasuna eta aldarrikapena lotu nahi dituzue, beraz.**

Bai, hori da. Emakumeak beste esparru batzuetan bere lekua aldarrikatu du, baina kirolean, 40 urtetik gorako emakume gutxi ikusten da.

Hori da Marianek esan zuena; lehenengo umeak direlako eta gero etxean gurasoak zaindu behar direlako, beti emakumeak geratzen dira zeregin horietan. Erakutsi nahi duguna da gu ere gai garela horrelako mendi ibilaldiak egiteko. Taldeko inor ez da profesionala, mendizaleak besterik ez gara.

**Gainera, kasu honetan, lehenengo irteera antolatu da eta hortik sortu da elkarte.**

Bai, horrela izan da. Ohikoa-ren alderantzizko bilakaera izan du Marimendi elkarteak.

**Zergatik uste duzu geratu direla 40 urtez gorako emakumeak kirol mundutik kanpo?**

Askotan gu gara geure burua baztertzen dugunak. Horrelako ekintzak daudenean, lotsa ematen digu bertaratzea. Esango dute-

naren beldur gara. Gero eta jende gazteagoa dago eta egia da, batzuetan, begiradak ikusten dituzula. Baina gu ere hemen gaude eta gure lekua aldarrikatu nahi dugu.

**Zergatik aukeratu duzue Mont Blanc mendia?**

Ni taldean sartu nintzenarako mendia aukeratuta zegoen. Baina hasiera batean, Alpeetako mendi garaiena delako aukeratu zuten Mont Blanc (4.808 metro). Europa mendebaldeko mendi garaiena da Mont Blanc.

Mendi tontorrean ez dugu ezer berezirik egingo. Beste irteera batzuetan bezala, Ikurrina eta presoan aldeko banderak eramango dituzte, baina nik ez dut ezer eramango. Azkenean, pisua da!

**Lau bide ezberdinetatik igoko duzue mendia. Zuri ze bide egokitu zaizu?**

Niri errazena, nik ez dut nahi konplikaziorik! Lau bide dira: bi iparraldetik (Aiguille de Gouter eta Aiguille de Midi) eta beste bi hegoaldeetik (Aiguille de Bionnassay eta Aiguilles Grises). Hegoaldeko bideak zailagoak



ARTXIBOA

Oleta inguruko mendietan ibiltzen da gustura Uriarte.

dira; eskalatu egin behar da eta zerbait luzeagoak dira.

**Zenbat emakume joango zarete?**

Lehenengo Suitzara joango gara, Saas Fee bailarara. Altuerara egokitzeke, lau milako tontor batzuk egingo ditugu Suitzan. Gero, bakoitza egokitu zaion irteerara joango da; batzuk Ita-

liara eta beste batzuk Frantziara. Guztira 25 emakume joango gara. Ni naiz gazteena eta nagusia Gernikako 65 urteko emakume bat da.

**Zeintzuk dira Marimendi taldean sartzeko baldintzak?**

Hiru baldintza bete behar dira; emakumea izatea, 40 urte-

tik gorakoa izatea eta euskalduna izatea.

**Eta gurean, ze mendi duzue gogokoan?**

Nik Orixolgo ibilaldia egiten dut gustura. San Kristobaletik hasi eta gailurreria guztia egiten dut Oletaraino iritsi arte. Gustura egiten dut hori.

## Marimendi elkarteko lagunak Petit Vignemalen izan ziren

Mont Blancera ibilaldia prestatzeko asmotan, Marimendi elkarteko lagunak inguruko mendietan beste ibilaldi batzuk egin dituzte. Hala, martxoan Aragoiko Pirinioetan izan ziren, Tena ibarrean, hain zuzen ere. Maiatzean, berriz, Cauteret-Gaube bailarako Petit Vignemale mendia igo zuten. Mendi horrek 3.032 metroko garaiera du eta 1.536 metroko malda. Bertan, Marimendi elkarteko 15 bat lagun izan ziren. Guztietan nagusia, Mariaje Atxalanda baso gernikarra izan zen. Atxalanda basok 65 urte ditu, baina sekulako sasoi dagoela esan digu Uriartek. Marimendiko emakumeak Mont Blancera bidea hartzeko irrikatan daudela aitortu digu Uriartek berak.



**"Marimendin ezinbesteko da 40 urte izatea, emakumea izatea eta euskalduna izatea"**

# KULTURA Aisialdia eta Zerbitzuak

- Xabi Igoa eta Mikel Serrato bertsolariek ez dute zorterik izan eskolarteko finalean | 24
- 70etik gora gomendioarekin kaleratu dute liburutegiek Biblioporrak gida | 27

Joselu anaiak taldeko Joselu Ruiz de Gordoarekin jardun dugu taldeaz eta erromeriaz | 26

**BERGARAKO BEART ELKARTEKO MARGOLARI GAZTEAK**

**BERGARAKO MARGOLARI GAZTETXOAK** | 5 ETA 13 URTE BITARTEKO 30 IKASLE ARI DIRA ZAPATURO BEARTEKO IRAKASLEEKIN ESKOLAK HARTZEN

## Beart elkarteko margolari txikienek erakusketa batekin agurtu dute kurtsoa

*Nahikari tabernan daude ikusgai haien lanak uztaillaren 9ra arte. 30 bat neska-mutikok hartu dute parte erakusketan*

Monika Belastegi

Ikasturteko azken koadroari azkeneko ukituak ematen harrapatu genituen zapatu goizean Beart arte elkartearen egoitzan Bergarako margolari gatzetxoek. Ikasturteko azken zapatua zen eta koadroa perfilatzea besterik ez zitzaien falta erabat bukatuta egoteko. Oihana Gariñano eta Mayra Jimenez irakasleek lagundu zieten zeregin horretan; izan ere, luntxa zain zuten eta inork ez zuen patatarik eta gozorik jan gabe geratu nahi.

Urrian hasi zituzten eskolak eta zapatu bitartean 5 eta 13 urte arteko 30 neska-mutiko finfin ibili dira zapaturo Bearten egoitzara joan eta pintura eta marrazketa tekniak ikasten. Batzuek lehenengo ikasturtea izan da, baina beste askok hainbat ikasturte daramate: izan



Azkeneko koadroa bukatu eta etxera eroan zuten zapatuan Beart elkarteko margolari txikienek.

ere, duela 8 urte hasi ziren umei eskolak ematen.

### ERAKUSKETA NAHIKARIN

Ikasleon koadroak erakusteko erakusteka antolatu dute irakasleek Nahikari tabernan. Bi

**Zapatuan izan zuten ikasturteko azken eskola eguna**

**Bi tandatan egin dute erakusketa. Orain bigarreneko lanak daude ikusgai**

tandatan egin dute erakusketa, Lehen ekainaren 18ra arte egon zen ikusgai. Bigarrena uztaillaren 9ra arte dago ikusgai. Ikasleak oso pozik daude erakusketarekin nahiz eta batzuei "lotsa pixka bat" ematen diela ere aitortu.

**• NESKA-MUTIKOEN DIOTE ZAILENA DELA KOADROA EGITEA ETA ERAKUSKETAK LOTSA PIXKA BAT EMATEN DIELA ERE AITORTU DUTE**



**GORKA, IBON ETA JOSEBA** | 8 URTE

Aurten hasi dira eta oso pozik joaten dira pintura eta marrazketa eskolara. "Gauza asko ikasi ditugu: koloreak nahastean, abstraktua egiten, marrazten...", azaldu dute. Uztaillan libre hartuko dute eta ez dira margo eskolara joango. Hala eta guztiz ere, "datorren ikasturtean ere berriz emango dugu izena etortzeko", aitortu dute.



**ALAZNE** | 7 URTE

Duela hiru bat urte hasi zen Bearten. "Koloreak ezberdintzen ikasi dut eta baita nahasketak egiten ere", esan digu Alaznek. Koadroak egitea da gehien gustatzen zaiona eta etxean, bere gelan hainbat dituela ere gehitu du.



**NEKANE, ELENE, LIBE, ENARA ETA IRATI** | 12 ETA 13 URTE

Beteranoak dira margo eskolan; lau eta sei urte bitartean daramate. "Zailena koadroa egitea da", esan dute, "batez ere, laminan bezala egitea", aitortu du boskoteak. Egunotan Nahikari tabernan egin duten erakusketaren gainean euren lana erakusteko "lotsa pixka bat" eman diela azaldu dute, baina aurpegiko poztasuna ezkutatu ezinik. Egindako koadro guztien artean ahaztu ezingo dutena "margotutako lehenengoa" dela azaldu digute.

• GAZTETXOAK BAI, BAINA NAGUSIAK ERE BAI

## Honezkero beteta dago uztaileko pintura eta marrazketa ikastaroa

Uztailean ere antolatzen du Beartek 5 eta 13 urte bitarteko gazte-  
txoendako margo eta marrazketa ikastaroa. Eta honezkero 30 plaza  
beteta daudela adierazi digu Oihana Garitano irakasleak.

Lau urte daramate uztaileko ikastaroa antolatzen: batetik, ikas-  
turteari jarraipena eman nahi dioten ikasleei horretarako aukera  
ematen die eta, bestetik, udako aisialdian margotzen hasi nahi dute-  
nek ere aukera ezin hobea dute. Ikastaroa uztailearen 3an hasiko da  
eta eskolak izango dira astelehenetik egubakoitzera, 10:30etik  
12:30era.

## Ricardo Azkargortaren ikasleek ere erakusketa jarri dute

Gaztetxoez gain, nagusiagoendako eskolak ere ematen dituzte Bear-  
ten. Ricardo Azkargorta da, hain justu, irakaslea eta haren ikasle-  
ek ere erakusketa dute ikusgai egunotan –uztailearen 4ra arte–, Ber-  
garako kultura etxean. 18 bat ikasleren lanak daude zintzilik.

Azkargortaren ikasleek ere urrian hasten dute ikasturtea eta  
ekainean bukatzen dute. Aurten 24 ikasle izan ditu, guztiak 30 urte-  
tik gorakoak. Martitzenetan izaten dituzte eskolak, Bearten egoi-  
tzan. Lau orduz egoten da han Azkargorta irakaslea eta ikasle bakoit-  
zak erabakitzen du lehenago edo beranduago joan, Azkargortak  
azaldu digunez. Eskola pertsonalizatuak dira eta ikasleetako bakoit-  
zaren lana jarraitzen du irakasleak. Bestalde, eguenetan joateko  
aukera ere izaten dute ikasleek –eskolarik ez egon arren– euren  
lanarekin jarraitzeko. Gainera, ikasleek lanerako behar duten guz-  
tia elkartean bertan lagatzeko aukera dute eta nahi duenari elkar-  
teko giltza ere lagatzen diote komeni zaionean joateko. Azkargor-  
taren esanetan eskolon helburu nagusia ondo pasatzea da eta edo-  
nordako atea irekita daudela gogorarazi du.



Ricardo Azkargortaren ikasleek lanak kultura etxean daude ikusgai.

## OIHANA GARITANO | PINTURA ETA MARRAZKETA IRAKASLEA

# “Umeak margotzen adieraz dezake ahoz esaten ez duena”

M.B.

**Mayra Jimenezekin batera 5 eta 13 urte bitarteko neska-mutikoei eskolak ematen dizkie Oihanak. Umeen zaletasunaz jardun dugu berarekin.**

**Zergatik erabaki zenuten umei eskolak ematen hastea?**

Egoitza egokia dugu eskolak emateko eta pentsatu genuen auke-  
ra polita zela umeengan ere zale-  
tasuna pizteko pintura eta marraz-  
keta eskolak ematea. Eskolaz kan-  
poko beste hainbat eskola ere  
badago, baina margotzea oso entre-  
tenigarria da umeendako.

**Umeek diote oso ondo pasatzen dutela.**

Bai, hala diote, eta gainera,  
asko euren borondatez etortzen  
dira, gustuko dutelako. Batzuei  
zaletasuna etxean piztu zaie, gura-  
soak ere zaleak direlako, baina bes-  
te batzuk datoz euren kabuz piztu  
zaielako. Batzuei, gainera, gusta-  
tzeaz gain, oso esku ona dutela bere-  
hala nabaritzen zaie, etxean asko  
margotzen dutela nabaritzen zaie.

**Zer ematen dio pinturak umeari?**

Barnekoa adierazteko modu  
bat da, izan ere, umeak margoa-  
ren bidez ahoz esaten ez duena  
adieraz dezake, hau da, espresa-  
tzen lagun diezaioke. Espresio  
bide oso ona da. Horrekin bate-  
ra, harremanak egiten ere lagun-  
tzen du. Umeak hona datozene-  
an margotzeaz gain euren arte-  
an berba asko egiten dute, eta  
abestu ere asko. Horrez gain,  
gai jakinen gainean ikasteko ere  
balio die. Esaterako, San Juan  
bezpera izan zen egubakoitzean  
eta horren gainean margotzean  
gaiaren gainean, ere egin dute  
berba.

Bestalde, eskolek, teknika ere  
ematen die, pintura zein marraz-  
ketan hobetzen joateko.



IMANOL SORIANO

**Badago adinik margotzen haste-  
ko? Zuek 5 urtetik gorakoei ematen  
diezue eskolak.**

Ez dago adinik. Baina guk ez  
ditugu 5etik beherakoak hartzen  
praktikotasun kontuengatik. Txiki-  
giogok behar dute atentzio han-

**“Margotzeko ez dago adinik. Edozein adin da ona hasteko”**

diagoa, eta ez da praktikoa guk  
orain dugun multzoan sartzea  
–5etik 13ra arte–. Txikiagoak har-  
tuz gero, komeni da multzo guztia  
izatea adin berberakoa, hala esko-  
lak adin horretara egokitzen ditu-  
zulako. Bostetik gorakoak auto-  
nomoagoak dira. Baina lehen esan  
bezala, margotzen hasteko edo-  
zein adin da ona.

**Harritu ere egiten zarete umeen  
abilidadearekin.**

Bai. Badira txikitxo batzuk  
hasiera batetik sekulako irudi-  
mena erakusten dutenak edo gai  
direnak, gustuko dituzten marraz-  
ki bizidunetako pertsonaiak buruz  
marrazteko. Eta badira ere beste  
batzuk, hasiera batean esku han-  
dirik ez dutela eman arren, bi urte-  
ra sekulako aurrerapena egiten  
dutenak. Interesa dute eta izuga-  
rri aurreratzen dute.



UNAI, MIREN ETA LEIRE |  
7 ETA 8 URTE

“Oso pozik hartu dugu parte Nahikariko erakusketan”,  
esan digu hirukoteak. Hiruzpalau koadro margotu dituz-  
te dagoeneko, eta “zailena koadroak egitea” dela esan dute.  
Oso pozik joaten dira margo eskoletara eta izugarri gus-  
tatzten zaie. Eskolako lagunekin ere oso ondo pasatzen  
dutela gehitu dute.



ERROXE ETA ANE |  
9 URTE

Aneri paisaiak margotzea gustatzen  
zaio gehien eta Erroxei denetarik,  
“baldin eta kolore biziak baldin badi-  
tu”. Beste gauza batzuen artean kolo-  
reak nola nahastu behar diren ikasi  
dutela azaldu digute.



PELLO ETA IÑAKI |  
10 ETA 13 URTE

“Paisaiak eta itsasontziak” margotzen  
ikasi du Pellok ondoen; Iñakik, berriz,  
“paisaiak”. Nahikariko erakusketan itsa-  
soko koadroa erakutsi du Pellok eta bode-  
goia, Iñakik. Oso gustura hartu dute par-  
te biek erakusketan.

**TOKI  
ALAI  
TABERNA**

**Karajiloetan  
espezializatua**

Tel.: 943 71 47 29  
ESKORIATZA

## Udako Argazkien II. Lehiaketa deitu du Goienak debagoiendarrendako

*Argazkiak bidaltzeko epea zabalik dago. Sari bikainak eroateko aukera dago, tartean, Olympus E-500 reflex argazki kamera digitala*

### Asteleheneko Goienkaria

Udako Argazkien Asteleheneko Goienkaria II. lehiaketa deitu du Goienak. Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du, adin mugarik gabe eta dagoeneko zabalik dago argazkiak bidaltzeko epea. Itxi, berriz, irailaren 18an egingo da.

Lehiaketan parte hartzeko ezinbesteko baldintza da udako argazkiak izatea, aurtengo uda-koak zein beste uda batekoak eta inoiz argitaragabeak.

Bestalde, koloretan zein zuri-beltzean izan daitezke eta parte hartzeko ez da ezer ordaindu behar.

### NOLA ETA NON AURKEZTU

Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta –hala izanez gero, paperean erreproduzitzeko moduko bereizmen eta kalitatearekin–.

Argazkiak bidali ahal izango dira e-postaz [argazkiak@goiena.com](mailto:argazkiak@goiena.com) helbidera edo Goienak dituen bulegoetara eraman: Arratsaten, Saiolan eraikina, Nafarroa etorbidea 2, 20500; Bergaran, Irizar jauregia, Barrenkalea 33, 20570 eta Aretxabaletan, Durana kalea 11, 2. solairua, 20550. Argazkiak egoitza eraman ez gero, gutunazal batean sartuta (egilearen izen-abizenekin), CD batean edo argazki digitalak gordetzeko bes-

te edozein euskarritan eta JPG formatuan.

### BOST ARGAZKI GEHIENEZ

Parte-hartzaile bakoitzak gehieze ere bost argazki bidali ahal izango ditu. Gainera, argazki bakoitzarekin batera adierazi behar da: egilearen izen-abizenak eta nongoa den, adina, harremnatarako telefonoa eta argazkiaren deskribapena, hau da, noiz eta non ateratakoa den, zer edo nor-tzuk agertzen diren, eta abar.

### ARGAZKIAK ARGITARATUKO DITUGU ASTEKO

Astero argitaratuko ditugu parte-hartzaileek bidalitako argazkiak ASTELEHENEKO GOIENKARIAN. Azken sorta irailaren 25ean argitaratuko da. Argazki asko jasoz gero, –iaz gertatu bezala–, ez dira guztiak argitaratuko; aukeraketa bat egingo da, baina lehiaketarako argazki guztiak hartuko dira aintzat. Bestalde, [www.goiena.net/blogak/argazkiak](http://www.goiena.net/blogak/argazkiak) fotoblogean ere egingo dira ikusgai argazkiak.

**Argazkiak jasotzeko epea zabalik dago irailaren 18ra arte**



AITOR BAÑARES

Baldintza da udako argazkiak izatea, uda honetakoak edo aurrekoetakoak.

### SARI MUNDIALAK

Epaimahaiak baloratuko ditu, besteak beste: gaia, kalitatea, originaltasuna, momentua, bizitasuna... Eta hiru sari potolo

**Astero aldizkarian eta 'goiena.net'-en argitaratuko ditugu argazkiak**

banatuko ditugu: lehenengoa, (Kiñu argazki dendaren eskutik) Olympus E-500 reflex argazki kamera digitala –zortzi milioi pixel, bi objektibo aldagarri: Zui-ko digital 14-45 mm eta 40-150 mm, flash-a, 2,5 pulgadako HyperCrystal LCD pantaila–. Bigarren saria da hotelean gaua pasatzeko Talon Plan Card txartela eta, hirugarrena, bi lagunendako bazkari/afaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jabetzekoan.

Xabier Arregiren 'Herria, hiria nazioa' liburua laister izango da kalean

M.B.

Egun gutxi barru egongo da liburu dendetan Xabier Arregi oñatiarraren bigarren liburua. *Herria, hiria, nazioa. Zibilismoaren sustraiak* da haren izenburua eta azken urteotan kontzeptu horien gainean hainbat filosofo eta teorikok egindako interpretazio maltzur eta interesatuak gezurtatu nahi ditu.

Xabier Arregik 2005ean argitaratu zuen bere lehenengo liburua; *Descartes* du izenburua Jakin Irakurgaiak bilduman eman zuen argitara. Aurretik hainbat itzulpen lan ere argitaratutakoa da Klasikoak bilduman: *Descartesen Metodoari buruzko diskurtsoa* eta *Meditazio Metafisikoak*, Shaftesburyren *Moralistak* eta Michael Foucaulten *Jakitearen arkeologia*.



Arregiren liburuaren azala.



### MUSIKA KORALA | TXINPARTA ETA MADALEN ABESBATZEN EMANALDIA OÑATIN

Gipuzkoako Abesbatzen Federazioaren eskutik emanaldia egin zuten atzo Oñatiko Santa Ana aretoan Lezoko Txinparta eta Mutrikuko Madalen abesbatzek. Euskal doinu ugari egin zituzten bi taldeek bakoitzak bere errepertorioan. Txinpartak, Nekane Artola piano-jotzailearen eta Estanis Karrerak zuzendutako talde instrumentalaren laguntza izan zuen. Madalen abesbatzari dagokionez, bitan banatu zuen emanaldia: Euskal musika goxoa izendatu zuen lehenengoa eta *Xalbadarren heriotzean* edo *Zugana Manuela* bezalako kantu ezagunak egin zituen; bigarrenean, filmetako musika, *Sister Act*, esaterako. | M.B.

## Bertan behera uztailaren 1ean Espaloian egitekoak ziren oi! kontzertua

A.G.

Uztailaren 1ean Elgetako Espaloian egitekoak ziren oi! kontzertua bertan behera geratu da. Antolatzaileek, jo behar zuten musika taldeek eta aretoko arduradunek elkarrekin hartutako erabakia izan da, "emanaldiak hartu duen noranzkoagatik", euren esanetan. Izan ere, "mehatxuak egon dira, gaizki esaka jardun du honako eta bestelako jendeak eta Interneteko foroetan ere esamesa ugari egon da".


Iturri beraren esanetan, "arrazoien oinarrian gaizki-ultzteak daude. Kontzertu hau egiteak ez du inolako zerikusirik ez faxistekin ez antzerakoekin. Hala ere, ez-jakinek zurrumurrur faltsuak zabaldu dituzte sarean eta zuhurtzia irizpide har-

tuta kontzerturik ez egitea erabaki da". Emanaldian Holandako Evil Conduct, Frantziako The Veros eta Euskal Herriko Brigada Criminal taldeak jotzekoak ziren. Baina The Veros taldeak ez jotzea erabaki zen sortutako zurrumurrur guztien harira eta Ukabilkada taldearengatik ordezkatu zuten. Hala ere, azkenean onena kontzertua bertan behera lagatzea zela iritzi diote.

Evil Conduct-ek lehenengoz jo behar zuen Euskal Herrian eta kontzertu bakarra egin behar zuen. Sarrera asko salduta zeuden eta Estatutik jende asko etortzekoa zen, eta horrexek eman die min handien antolatzaile, musika talde eta aretokoei. Hala, eragozpenak barkatzeko eskatu dute. Sarreraren dirua itzuliko dutela ere gehitu dute.

# Debagoieneko WEBGUNEAK

# WWW.



**AHOLKULARITZAK**  
**ESTRADOS**  
www.consultoria.estrados.com

**ANTZINAKO ALTZARIAK**  
**ZUMADIA**  
www.zumadia.com

**AKADEMIAK**  
**BASTIDA**  
www.bastida.es

**ALTZARIAK ETA APAINKETAK**  
**BZ-SISTEMAS**  
www.goiena.net/blogak/BZ-sistemas  
**MARRUBI**  
www.marrubi.com

**ARGAZKIAK/ARGAZKILARIAK**  
**MARIA JESUS**  
www.mjargazki.com

**ARROZTEGIAK**  
**ARREGI**  
www.goiena.net/blogak/arregi  
**AZKARATE**  
www.goiena.net/blogak/azkarate

**ASEGURUAK**  
**BRIZ ASEGURUAK**  
www.goiena.net/blogak/briz-aseguruak  
**WINTERTHUR**  
www.winterthur.es

**AUTOEN GARAJEAK/KONPONKETA**  
**AUTOS ARETXA S.L.**  
www.autosaretxa.com  
**AUTOS RIBEGOLA -BMW-**  
www.autos-ribegola.com  
**GALLASTEGI MOTOR SPORT**  
www.goiena.net/blogak/gallastegi

**AUTO-KONTZESIONARIOAK**  
**4QUATTRO 4**  
www.goiena.net/blogak/4quattro4

**BIDAIA AGENTZIAK**  
**BARCELO**  
www.barceloviajes.com

**BITXITEGI TAILERRA**  
**OSCAR VITORIA**  
www.goiena.net/blogak/vitoria

**ELEKTRIZITATE INSTALAZIOAK**  
**ARETXARGI**  
www.goiena.net/blogak/aretxargi

**ELEKTRIZITATE MATERIALAK**  
**SETALDE**  
www.setalde.com

**ERAIKUNTZAK**  
**CONSTRULAN**  
www.construlansl.com

**ERROTULOAK**  
**PANDO**  
www.goiena.net/blogak/pando

**ESTETIKA ZENTROAK**  
**ANGELA**  
www.angelaestetika.net  
**GUZTIZ EDER**  
www.goiena.net/blogak/guztizeder  
**LILURA**  
www.lilura.com  
**MAIER**  
www.goiena.net/blogak/richimaier

**GARBIKETAK**  
**HEMEN**  
www.hemen-garbiketak.com

**GIMNASIOAK**  
**IRUDI SPORT**  
www.goiena.net/blogak/irudisport

**HARATEGIAK**  
**LANDALUZE**  
www.landaluze.com

**HAUR PARKEAK**  
**OKIPARK S.L.**  
www.goiena.net/blogak/okipark

**HESTEBETEAK**  
**URDEKI**  
www.goiena.net/blogak/urdeki

**HIZKUNTZA AKADEMIAK**  
**CIM-OÑATI BAI & BY**  
www.cim-idiomas.com

**HOTELAK**  
**HOTEL MONDRAGON**  
www.hotelmondragon.com

**ILE APAINDEGIAK**  
**RICHI**  
www.goiena.net/blogak/richimaier

**INFORMATIKA**  
**DCA COMPANY**  
www.dcacompany.com

**INGENIARI GEOLOGIKOA**  
**HARRILUR**  
www.harrilur.com

**INMOBILIARIAK**  
**ANBOTO**  
www.inmoarrasate.com  
**ARRIETA & SAN MIGUEL**  
www.arrietasanmiguel.com

**KOROSTI**  
www.inmokorosti.com  
**UDALATX**  
www.goiena.net/blogak/udalatx

**JANARIAK**  
**GERTU**  
www.goiena.net/blogak/gertu

**JANTZI DENDAK**  
**MARKIEGI**  
www.goiena.net/blogak/markiegi  
**UDALAITZ**  
www.goiena.net/blogak/udalaitz

**JATETXEAK**  
**BASTER ALDE**  
www.baster-alde.com  
**DRAGON ORIENTAL**  
www.goiena.net/blogak/dragon-oriental  
**DUKIENA**  
www.goiena.net/blogak/dukiena  
**MAULANDA**  
www.goiena.net/blogak/maulanda

**LANTEGI ETA TAILERRAK**  
**TALLERES CARPINS S.L.**  
www.carpinsa.com  
**LEIHOAK**  
**ARGI-PLASTIK**  
www.goiena.net/blogak/argi-plastik  
**EGO**  
www.goiena.net/blogak/ego

**LORADENDAK**  
**EKILORE**  
www.goiena.net/blogak/ekilore  
**MAYTE**  
www.goiena.net/blogak/mayte

**OINETAKOAK**  
**KORO ZABALETA**  
www.goiena.net/blogak/korozabaleta

**OPARIAK**  
**MERKEOPARI**  
www.goiena.net/blogak/merkeopari

**OPTIKAK**  
**MULTIOPTICAS LARRAÑAGA**  
www.goiena.net/blogak/multiopticas

**OSTALARITZA**  
**GARAIA OSTALARITZA HORNIKETAK**  
www.goiena.net/blogak/garaia

**PUBLIZITATE AGENTZIAK**  
**ADOX**  
www.adoxnet.com

**SKATE&SNOW**  
**LAINO**  
www.laino.info

**SUKALDEKO ALTZARIAK**  
**BASTIDA SUKALDEAK**  
www.goiena.net/blogak/bastida

**TABERNAK**  
**EZKUTU**  
www.goiena.net/blogak/ezkutuorly  
**GUREA**  
www.goiena.net/blogak/gurea  
**ORLY**  
www.goiena.net/blogak/ezkutuorly  
**ZIRIPOT**  
www.goiena.net/blogak/ziripot

**TATUAJEAK**  
**GANESHA**  
www.goiena.net/blogak/ganesha

**TAXIAK**  
**GORKA GARAI**  
www.goiena.net/blogak/gorkataxi

**UDAL ZERBITZUAK**  
**GAZTEEN INFORMAZIO BULEGOA**  
www.aizue.com

**UMEENDAKO ARROPA**  
**HAURTXXOA**  
www.goiena.net/blogak/haurtxoa

**ZERBITZU DIGITALAK**  
**ATAI**  
www.goiena.net/blogak/atai

**ZUR LANTZAILEA**  
**ELEJALDE**  
www.goiena.net/blogak/elejalde

Bisita ezazu:  
[www.goiena.net/merkatua](http://www.goiena.net/merkatua)

Iragarkia jarri nahi baduzu,  
deitu 943 71 23 91 zenbakira.



JOSETXO ARANTZABAL

Zizelkada indartsuak eta figura espresionistak dira Oteitzaren ikurretako batzuk.

## Irekita Antonio Oteitzaren brontzezko lanen erakusketa

*Arregi galerian egongo dira uztailaren 22ra arte Donostiako artistaren 20 lan, motibo erlijiosoetan eta herrikoietan oinarrituak*

**Non.** Arregi enmarkazioak.  
**Zenbat lan.** 20 bat eskultura.  
**Epea.** Eguenean ireki zuten eta uztailearen 22ra arte egongo dira erakusgai.

Jon Berezibar

Eguena ezkerre daude ikusgai Antonio Oteitza eskultorearen 20 lan Arrasateko Arregi aretoan. Artistak berak ezin izan zuen inaugurazioan egon, lan kontuak zirela medio. Brontzezko eskul-

tura espresionistak dira, gai herrikoiek hartuta: harri-jasotzaileak, traineruak, trikitilariak... Tamaina handiko lanak ere egin izan ditu Donostiako artistak. Lanen artean, hain zuzen ere, Arrasaten tamaina handiko eskultura bat dauka, San Juan de Dios ospitalean Gesalibarren, egoitzaren sorreraren ehungarren urteurrenerako egindakoa. Joera espresionistekin, monografiak egin ohi ditu, sarri kolonaurreko kulturatan oinarritutakoak edo pertsonaia historikoetan.

### SAKRATUA NAHIZ HERRIKOIA

Jorge Oteitzaren anaia da Antonio, monje kaputzinoa da eta arte erlijiosoan oinarritu du ibilbide artistikoaren zatirik handiena; hala, apostolu edo deikundeen irudien artean, futbolari eta traineruen figurak ere tartekatu ditu. Arrasaten ikusgai dauden obren artean figurak daude eta baita horma-irudiak ere, guztiak joera berekoak. Italian ikasi eta urte asko Hego Amerikan egindakoa da, ebanjelizazioan. Forma indartsuko eta zizelkada nabarmeneko lanak aurkezten ditu Oteitzak. Gehienetan aipatutako adar elizkoi hari dagozkienak izango dira, baina motibo herrikoiei dedikatutako obrak ere egongo dira ikusgai erakusketan.

## Aramaioarrek ez zuten zortetik izan Eskolarteko Bertsolari Txapelketan

*Debagoienetik, Xabi Igoa eta Mikel Serrato aramaioarrek jardun zuten txikien mailan Altsasuko Burunda pilotalekuan*

Goreti Elortza

Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioak Euskal Herriko Bertsolarekin Elkartearekin lanikidetzan antolatutako Euskal Herriko XVIII. Eskolarteko Bertsolari Txapelketa giro ezin hobean iragan zen zapatuan.

Estitxu Fernandezek aurkeztutako ekitaldia 11:00etan hasi zen eta txikien mailakoek jardun zuten lehenengo. Zazpi herrialdeetako ordezkariak batu ziren, probintzia bakoitzetik bi. Handien mailakoek, 18 urte artekoek, arratsaldean jardun zuten bertsotan, bazkaldu ostean.

Saioarekin hasteko, agurreko bertsoak bota zituzten gaztetxoek. Segidan, lau oinak emanda bertso bana osatu zuten zortziko txikian 14 urte arteko lehiakideek. Txapelketa eta

gizarte inguruko gaiak nagusitu ziren. Lehenengo fasea bukatzeko, binaka jardun zuten ofiziotako gaietan eta ondoren, 14 bertsolariatatik sei sailkatu ziren azken atalerako: Txomin Elozegi, Amaia Iturriotz, Ximun Cazaubon, Ane Labaka, Johaiñe Sarrailet eta Bixente Luku izan ziren aukeratuak. Arabako ordezkari gisa jardun zuten Xabi Igoa eta Mikel Serrato aramaioarrek ez zuten aurrera egiterik izan.

### LAPURDI ETA GIPUZKOA NAGUSI TXIKIEN MAILAN

Txikien mailan Txomin Elozegi lapurtarra izan zen txapeldun eta Ane Labaka lasartearra txapeldunorde. Handien mailan, Arrate Illaro getxotarra nagusitu zen eta Miren Amuritz berriztarra izan zen txapeldunorde.



ASTELEHENKO GOIENKARIA

Txikien mailako lehiakideak Burunda pilotalekuan.

### DIPLOMA JASO ZUTEN BERGARAKO MUSIKA IKASLEEK

Bergarako Musika Eskolak ikasturte bukaerako diplomak banatu zituen eguean, Zabalotegi aretoan. Ikasle eta guraso ugari batu zen bertara eta aretoa bete egin zen.

Ikasturte bukaera izanik, bigarren zikloa bukatu duten ikasleek jaso zuten diploma; hogeita hamar bat ikaslek, hain justu. 19:00ak aldera hasi zen ekitaldia eta bigarren zikloa bukatu berri duten ikasleek urtean barrena ikasitakoa erakutsi zuten, nork bere instrumentuarekin eta taldeka taula gainean. Horren ondotik diploma jaso zuten txalo artean musikari gazteek.

Ekitaldi amaieran diploma eskuan zutela pozik jarri ziren argazkirako ikasleak. Bada, Bergaran dagoen musikarako zaletasun handia aspaldikoa da eta argi dago neska-mutikook ikusita musikari harrobi itzela dutela bergarrek. | M.B.





SHARON STONER | LAGUN ARTEAN AURKEZTU ZUTEN '3000 BIRA'

# Disko berriarekin, erronkei aurre egiteko prest

*Sharon Stonerrek egubakoitzean aurkeztu zuen, Xagu tabernan, itxarondako debuta: irailean, gainera, Azkena Rocken joko dute*

Jon Berezibar

Badute zer ospatua Sharon Stonerrekoeak. Azken asteak benetan gozoak izan dira hirukotearentzat, Bilbo Hiria rock lehiaketan rock talde onenari saria jaso eta oraingo asteen plazaratuko duten diskoarekin. Debut lana, *3000 bira* izenarekin, joan den egubakoitzean aurkeztu zuten lagun artean Oñatiko Xagu Xar tabernan, eta gauean kontzertua egin zuten Ona tabernan.

Herri mailan aurkeztu gura zuten Sharon Stonerrekoeak dis-

ko berria eta horretarako aukeratu zuten Xagu taberna. Lagunekin egon, pintxoak jan eta bertan saldu zituzten disko berriaren lehen aleak.

Banaketari dagokionez, oraindik ez daukate kontraturik diskoetxe batekin eta momentuz taberna batzuetan eta zuzenekoetan ipiniko dute salgai diskoa, Iñigo Ibarrondo abeslari eta baxu-jotzaileak berak hala azalduta. Orain dela urtebete grabatu zuten diskoa, Danbaka musika lehiaketako lehen saria izan zena, hain zuzen ere.



JOSETXO ARANTZABAL

Mikel, Iñigo eta Egoitz -disko berria eskuetan duela- egubakoitzeko aurkezpenean.

## UNE GOZOAK

Disko berria besapean, kontzertuetan aurkeztea geratzen zaie oñatiarrei. Horretarako aukera paregabea Gasteizen izango den Azkena Rock Festival entzuteak emango die, irail hasieran, hain zuzen ere.

**Berriki, Bilbo Hiria lehiaketan euskal rock talde onenari saria eman diete**

Diskoetxeen promoziorik ezan, ziur Azkena Rockeko kartelak behar bezalako bultzada eman diela txantxikuei.

Momentuz, euren asmoa zuzenekoekin jo eta ke ibiltzea dela azaldu dute Sharon Stonerrekoeak,



**GRUPO RKUZ**  
ARETXABALETA 1950 • 2006 ARRASATE

**Electrodomesticos**  
Andramari auzunea  
Tel./Faxa: 943 79 10 97  
ARETXABALETA

**Cocina Integral**  
Mitarte 3  
Tel./Faxa: 943 77 04 55  
ARETXABALETA

**ETXE MODEL**  
ALTZARIAN  
Araba etorbidea 5  
Tel./Faxa: 943 79 41 82  
ARRASATE

**Muebles**  
Araba etorbidea 20  
Tel./Faxa: 943 79 23 51  
ARETXABALETA

Harrituta utzi nahi dituzu zure txikiak?  
Har ezazu une bat...  
Arkautz etxearekin, amets zoragarriak izango dituzte.

**Arkautz zure etxea da.**

Joselu Anaiak talde mitiko eta beteroa dugu. 1979a ezker Euskal Herriko plazak alaitzen dituzte Joselu, Jabier, Andoni, Felix eta Jesus anaiak. Izatez Araiakoak

dira, Arabako herri txiki hartakoak, baina gaur egun Gasteizen bizi dira. Euren ibilbide luzean zazpi disko atera dituzte eta orain beste disko bat gertatzen ari dira.

Neguan sartuko dira estudioan grabaketak egiteko. Ilusioak eta gorputzak irauten duten bitartean jarraituko dutela esan ziguten zapatuan Arrasaten.

JOSELU RUIZ DE GORDOA | JOSELU ANAIK TALDEKO KIDEA

# “Bikote askok ezagutu dute elkar gure abestiekin, pozgarria da hori”

Goreti Elortza

**27 urte taula gainean plazarik plaza, zer sentitzen da?**

Oso sentimendu polita da, bizitzeko era bat. Gu 79an hasi ginen eta oraindik ere hasierako ilusioa mantentzen dugu. Musika gustatzen zaigu eta jotzeko aukera ematen digutenez, hemen jarraitzen dugu...

**Zu Joselu zara, taldeak ere Joselu Anaiak du izena... Zu izan al zinen bultzatzailea?**

Ez, ez, ez! Egia esan, nire anaiak sortu zuten lehenengo taldea. Ni izan nintzen taldera batu zen azkena eta sartu nintzanean nire anaiak horrela erabaki zuten. Joselu izena gelditzen omen zen ondoen...

**Orain Arrasate tokatu da, baina naiz etortzen zarete Debagoienera, ezta?**

Bai askotan etorri izan gara Debagoienera eta deituz gero jarraituko dugu etortzen! Eskoriatzan, Oñatin, Aretxabaletan... Bertako herri askotako plazetan izan gara. Irailean Bergaran joko dugu, San Martin jaietan.

**Plazarik plaza, dantza solte eta lotuak... Zenbat bikote egingo zenituzten?**

(Barreak). Askok, bikote askok egin ditugu gure ibilbide guztian zehar. Lehen gehiago dantzatzeko zen dantza lotua eta bikote askok esan digute gure abesti batekin ezagutu zutela elkar, lehenengo musua eman edo jaso zutela... Bikote askoren ezkontzetan ere izan gara. 25 urte bete zituen bikote baten ospakizunean ere egon ginen, gure abesti batekin ezagutu zuten-eta

elkar. Oso polita da horrelako gauzakin gogoratzea. Eta harro egotekoa da, gainera.

**Oholtza gainetik desberdin ikusiko dira, bada gauzak. Nola ikusten dira plazak hor gainetik?**

Oso politak ikusten dira jendeak parte hartzen duenean. Gaur eguraldiak ez du askorik laguntzen, baina ea jendea animatzen den... Atzo Gasteizko Judimendi auzoan izan ginen eta sekulako giroa zegoen, oso giro jatorra. Horrelako egunetan politagoa ikusten da plaza oholtza gainetik.

**Zein esango zenuke dela plazarik onena?**

Oso zaila da galdera horri erantzutea. Faktore askok baldintzatzen dute hori. Egunaren eta jendearen arabera da. Egia da 80ko hamarkadan giro handiagoa egoten zela plazetan, orain jendea tabernetan gehiago ibiltzen da eta.

**Kontzertu asko emango dituzue urtean zehar, baina zein da zuentzat sasoi onena?**

Guretzat sasoi onena uda da. Urtaro honetan ospatzen dira herri gehienetako jaiak eta orduan izaten dugu lan handien. Udaren hasiera dakar

**“Ilusioak eta gorputzak iraun bitartean jarraituko dugu Joselu Anaiak herriko plazetan kontzertuak egiten”**



Joselu Ruiz de Gordoa kontzertua hasi aurretik, Arrasaten.

JOSETXO ARANTZABAL

horrek. Normalean plaza bertan jotzen dugu. Urtearen arabera aldatzen bada ere, gutxi gorabehera 90 kontzertu ematen ditugu urtean.

**Zuen ibilbide luzetik, zein abesti izan da arrakastatsuenak?**

Zaila da esatea. Nire ustez lehen amodiozko abestiek oso harrera ona zuten. Rantxerak ere jendeak oso gustuko ditu... Estilo askotariko abestiak kantatzen ditugu. Emanaldi bakoi-tzean dagoen jendearen arabera aukeratzen ditugu, edota jendeak eskatzen dituenak jo. Egungo gazteei saltoka ibiltzea gehiago gustatzen zaie.

**Euskal erromeriak gaitzen ari omen dira. Zer deritzozu?**

Ez dut uste hori horrela denik. Modak izaten dira eta denborak esango du... Tradizio-ra itzultzen da jendea. Egun eskaintza handiagoa dago kultura arloan. Lehen, adibidez, bizpahiru egun ematen genituen herri bateko jaietan. Orain, ordea, egun bakarrean.

**Baina bizitzeko lain ematen al du erromeriak? Ala beste lan batzuk ere badituzue?**

Taldekide guztiok beste jarduera batzuetan ere badihardugu, baina guztiok musikaren munduko zerbait egiten dugu. Nik Musika Eskolan egiten dut lan.

**Wazemank telebista saioan zuen parodiak egiten dituzte...**

Bai, esan didate nire anaiak telebistan parodiatzen gaituztela, baina ez dut ikusteko aukerarik izan. Ez zait gaizki iruditzen, baina bizarrarekin irten-go dira guztiak, ez?

## Haur, gazte eta nagusiak dantzan jarri zituzten

Joselu Anaien kontzertuak oso harrera ona izan zuen arrasatearren eta Arrasatera hurbildutakoaren artean. San Juan jaien egitarauaren barruan zapatu gauean jo zuen talde beteroa baina osasuntsuak Arrasateko plazan.

23:30ak aldean hasi zen kontzertua eta jende ugari animatu zen dantzara. Ume, gazte zein zaharagoek betiko kantu ezagunak gustura asko abestu eta dantzatu zituzten talde ezagun horrekin. Askotariko estiloak tartekatuz zituzten Araiako bost anaiak eta bertan batutakoek ez zuten aspertzeko aukerarik izan. Euskal kantuetatik Mexiko aldeko doinueta eta amodiozkoetatik

animatuagotara, errepertorio luzea eskaini zuten. Euren ilusio eta musikarako grina argi utzi zuten beste behin. Eta abesti berriak ere jo zituzten. Izan ere, neguan hasiko dira zortzigarren diskoaren grabaketa lanak egiten.

1979an hasi zirenetik hona ehunka bikoteren dantza zein musuen lekuko izan dira taldekideak, eta hori oso pozgarria dela aitortu ziguten, kontzertua hasi aurretik: “Gure nahia jendeak gure musikarekin gozatzea eta ondo pasatzea da. Eta bikoteak sortzen badira...hobeto! horrelako gauzak beti dira pozgarriak. Gure abestiek zerbaiterako balio dutela ikusten da...”.



## Hirurogeita hamarretik gora gomendio batzen ditu Biblioporrak gidak

*Liburuen artean, Auster, Uribe eta Igerabideren lanak daude; ikus-entzunezkoetan, Rafa Rueda eta Potemkinen CDak*

Leire Kortabarria

Kalean da Debagoieneko eta Legazpiko udal liburutegiek prestatutako udako Biblioporrak gida, 70 gomendio baino gehiagorekin. Udal liburutegietan eskura daiteke, eta ikas-tetxeetan ere banatu dute. Gomendioez gain, liburutegi bakoitzaren udako ordutegia ere badakar.

Debagoieneko produktu bakarra Potemkin taldearen diskoa da, ikus-entzunezkoen tartean. Beste aukera nabarmen batzuk dira Rafa Ruedaren *Saredun eskua* diskoa eta *Sin city* eta *El método* filmak.

Liburuen artean ere, egile eta lan interesgarriak daude:

Kirmen Uriberen *Garmendia* eta *Fannyren sekretua* eta Manu Lopezen *Gogoa lege*, gazteendako liburuetan; Juan Kruz Igerabideren *Hauts bihurtu zineten*; Letretako Asturiasko Printze saridun Paul Austerrren *Brooklyngo erokeriak*, helduendako...

### IDAZLE EZAGUN ASKO

Ohi bezala, adin tarteka banatu dituzte gomendioak: Otik aurrera, 0-6 urte bitartekoak, 6 urtetik aurrera, 9 urtetik aurrera, gazteak eta helduak.

Urtero moduan, euskarazko eta espainolezko liburuak batzen ditu gidak, eta idazle euskaldun askoren lanak agertzen dira: aipatutakoez gain, Inazio Muxika Iraola, Imanol Azkue, Patxi Zubizarreta, Karlos Linazasoro... eta, kanpokoen artean, Philippe Claudel, Gustavo Martin Garzo eta Joyce Carol Oates dira ezagunenetako batzuk.

Liburuak eta ikus-entzunezkoak liburuzainek aukeratzeko dituzte: urtean zehar iritsi diren liburuetatik kalitate eta entretenimendua hobeto uztartzen dituztenak dira.

## Labur

### Oñatiko jaietako programaren azala aukeratzeko lehiaketa deitu dute

Oñatiko San Migel jaietako programaren azala aukeratzeko lehiaketa deitu du Udal Kultura batzordeak. Oñatin jaio edo bizi den edozeinek parte har dezake. Teknika libre utzi dute. Derrigorrezko testua hau da: *Oñatiko jaixak 2006*.

Lanak uztailaren 15a baino lehen entregatu behar dira turismo bulegoan edo kultura etxean. Lelo sistema bidez entregatu behar dira. 250 eta 125 euroko sari bana emango dute, eta irabazlearen lana izango da jaietako irudi ofiziala.

### Lagwagon taldeak punk melodiko kontzertua egingo du Bergaran

Lagwagon talde kaliforniarrak punk melodiko estiloko kontzertua egingo du egunean, hilak 29, Jam aretoan, 21:00etan. Bosgarren diskoa, *Resolve*, aurkeztuko du AEBetako boskote horrek. Bere buruaz beste egin zuen Derrick Plourde bateria jotzailearen omenezko diskoa da. Yawn taldeak ere joko du gau berean.

Sarrerak salgai daude 19,60 eurotan, honako lekuetan: Jam aretoan eta Etxagi tabernan, Bergaran; eta Lazkano dendan, Arrasaten.

### III. Euskal Herriko grafiti lehiaketan parte hartzeko epea zabalik dago

III. Euskal Herriko grafiti lehiaketa antolatu du Topagunea Euskara Elkarteen Federazioak.

Parte hartu gura dutenek marraztuko duten grafitiaren zirriborroa bidali behar dute Topagunera, honako helbidera: Arlozabal 8 bis, 1C. 48220 Abadiño (Bizkaia). 1.200 euroko hiru sari banatu dituzte. Lanak bidaltzeko mugaeguna abuztuaren 31 da.

Argibide gehiagorako, deitu 94 621 51 16 telefonora edo bidali mezua [gazteak2@topagunea.com](mailto:gazteak2@topagunea.com) helbidera.

## Hitzorduak



### I. FILM LABUR LEHIAKETA ANTOLATU DU BERGARAKO KULTURA SAILAK I

Hiru sari emango dituzte: 300 eta 250 euroko bana, eta bergarar onenarendako 100 eurokoa

Film labur lehiaketa antolatu du Bergarako Udalak, lehenengo aldiz. Debagoienean bizi den edozeinek parte har dezake, bakarka edo taldeka.

Gaia librea da. Istorioa, bideo-klipa, iragarkia, irudi muntaia, esketxa, dokumentala, arte bideo... onartzen dituzte.

Lan bakoitza bakarka aurkeztu behar da, VHS edo DVD euskarrian; gutun-azal berean norberaren datuak ipini behar dira, eta lanaren dokumentazioa. 300 eta 250 euroko sari bana emango dute, eta bergarar onenari 100 euro. Argibideak: [www.bergara.net/Udala/Antolaketa/Kultura/filmoinarri](http://www.bergara.net/Udala/Antolaketa/Kultura/filmoinarri).

### ZINEMA I

#### • *Coffee and cigarettes* filma emango dute Elgetan

*Coffee and cigarettes* kultuzko filma emango dute etzi, eguaztena, Espaloia antzokian, 21:30ean. Jim Jarmusch da zuzendaria. 11 istoriok osatzen dute filma, kafea eta zigarrak elementu komun bakarra direla. Roberto Benigni, Iggy Pop, Tom Waits... azaltzen dira.

### MUSIKA I

#### • Arrasate Musikaleko Big Band taldearen emanaldia

Arrasate Musikaleko Big Band taldeak kontzertua egingo du hilaren 30ean, egubakoitza, Monterron parkean, 22:30ean.

#### • Niko eta Dominike Etxart eta Mikel Markez

Niko eta Dominike Etxartek eta Mikel Markezek euskal kantu tradizionalak abestuko dituzte. Hilaren 30ean, egubakoitza, izango da kontzertua Antzuolan, Antiguako baselizan, 22:30ean.

#### • Hainbat taldek joko dute Oñatiko Gaztetxe Egunean

Uztailaren 1ean, zapatua, Oñatiko II. Gaztetxe Eguna ospatuko dute. Besteak beste, bi kontzertu izango dira: 17:00etan, Lucrecia, Patxi Katarro y los Vagueza Cronica eta Bitz taldeek joko dute, eta 20:00etan, Banda Batxoki, Sub-

version, Josu Distorsion y los del Puente Romano eta Manolo Kabezabolok joko dute. Epai-ketei aurre egiteko kontzertua izango da hori.

### ERAKUSKETAK I

#### • Aste Zapatistaren barnean, artisautza erakusketa

Artisautza erakusketa antolatu dute Aste Zapatistaren antolatzaile berberak. Kultura etxean dago ekain osoan.

#### • Mari Carmen Laskurain bergararraren margolanak

Mari Carmen Laskurain margolariaren lanen erakusketa dago Elgetako Espaloia antzokian. 18 bat margolan dauzka han, batik bat loreak, paisaiak, natura hilak eta marinak.

#### • Baserritarren janzkera tipikoak ikusgai Eskoriatzan

*Herri janzkerak* izenburuarekin, baserritarren jantzi tipikoen erakusketa dago Inkernu tabernan uztailaren 1era arte.

### IKASTAROAK I

#### • Gazteendako hiru ikastaro daude Arrasaten

Gazteendako capoeira, erromeriako dantza eta argazkigintza digital ikastaroak daude aukeran. Izenematea, Gazte Informazio Bulegoan (943 77 00 65).

• Aramaioko Uda Ikastaroak zabalik dute izenematea Aramaioko V. Uda Ikasta-

roetan izena eman daiteke, 902 19 96 47 telefonoan. 1876-1914 garaia aztertuko dute aurretan.

### LEHIAKETAK I

#### • Gomendatzen dizut...

#### lehiaketan parte har daiteke

Arrasate eta Bergarako gazte informazio zerbitzuek *Gomendatzen dizut...* lehiaketa deitu dute. Oporren gaineko gomendioak eskatzen dituzte. Sariak dira, Arrasaten eta Bergaran, 500 euroko balioa duen oporralditxo bat; eta Arrasaten, horrez gain, 17 urtetik behar-rakoendako, 300 euroko irteera bat.

#### • Elgoibarko kirol argazki lehiaketa antolatu dute

Kirol argazki lehiaketa antolatu du Elgoibarko Udalak. Norberak gehienez lau argazki aurkez ditzake, 24 x 30 cm-koak. 200 eta 100 euroko sari bana dago 16-29 urte bitarteko eta hortik gorako kategorietan. Argibide gehiagorako, deitu 943 74 44 15 telefonora edo jo [www.elgoibar.org](http://www.elgoibar.org) webgunera. Uztailaren 21a da lanak bidaltzeko mugaeguna.

### OHARRAK I

#### • Ibarraundi museoak

#### ordutegi berria dauka

Honako ordutegia du Ibarraundi museoak: aste-gunetan, 09:00-14:00; jaiegunetan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:00.

**Eguraldia**



**Astearen lehen erdia hodeitsu eta tenperatura egonkorrekoa izango da**

Zerua hodeitsu egongo da goiz hasieran gaur, astelehena. Tenperatura 20 graduren bueltan egongo da eta arratsaldeko bero-hodeiak sortzen has daitezke, zaparrada arinak eraginez. Biharko joera ere antzekoa izatea espero da, eta zirimiria egin dezake. Tenperatura antzera mantenduko dela ematen du, 20 graduren inguruan, eta termometroak gora asteburu aldera egingo du. Eguaztenean eguna hodeitsu hasiko bada ere, ostarate zabalagoak ikusiko dira etzirako eta eguraldia berotzen hasiko da. Hala ere, ekaitz zaparrada arin-ertainak espero dira eguaztenean ere.

**Guardiako farmaziak**

**ARRASATE**

<b>Astelehena, 26</b>	Amezua	Santa Marina, 32 ( 943 79 09 74)
<b>Martitzena, 27</b>	Español	Araba Etorbidea, 14 ( 943 79 18 65)
<b>Eguaztena, 28</b>	Ruiz Perez	Maala, 31 ( 943 79 14 09)
<b>Eguena, 29</b>	Zabala	Zarugalde 42 ( 943 77 16 30)
<b>Egubakoitza, 30</b>	Azkoaga	Ferrerias 1 ( 943 79 15 15)

**BERGARA**

<b>Astelehena, 26</b>	Mozos	Iparragirre 2 (943 76 12 15)
<b>Martitzena, 27</b>	Urrutikoetxea	Oxirondo 4 (943 76 16 87)
<b>Eguaztena, 28</b>	Zabala	Barrenkale, 25 (943 76 16 87)
<b>Eguena, 29</b>	Guallar	San Antonio, 5 (943 76 11 05)
<b>Egubakoitza, 30</b>	Estella	Matxiategi, 5 (943 76 16 87)

**OÑATI**

<b>Astelehena, 26</b>	Garate	Kale Barria, 42 (943 78 05 58)
<b>Martitzena, 27</b>	Garate	Kale Barria, 42 (943 78 05 58)
<b>Eguaztena, 28</b>	Juldain	Kale Barria, 6 (943 78 19 63)
<b>Eguena, 29</b>	Juldain	Kale Barria, 6 (943 78 19 63)
<b>Egubakoitza, 30</b>	Anduaga	San Lorentzo, 3 (943 78 21 16)

**ARETXABALETA**

<b>Astelehena, 26</b>	Iturralde	Belorrieta, 1 (943 08 11 43)
<b>Martitzena, 27</b>	Iturralde	Belorrieta, 1 (943 08 11 43)
<b>Eguaztena, 28</b>	Iturralde	Belorrieta, 1 (943 08 11 43)
<b>Eguena, 29</b>	Iturralde	Belorrieta, 1 (943 08 11 43)
<b>Egubakoitza, 30</b>	Iturralde	Belorrieta, 1 (943 08 11 43)

**Telefono jakingarriak**



**OSASUNA / LARRIALDIK**

OSAKIDETZA (Larriald.)	943 46 11 11
DYA (Orokorra)	943 46 46 22
DYA (Antzuola)	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Ertzaintza	
Arrasate	943 79 71 99
Bergara	943 53 47 20
Osasun Etxeak	
Arrasateko Ospital.	943 03 53 00
Antzuola	943 76 62 23
Aramaio	945 44 53 40
Aretxabaleta	943 71 19 59
Bergara	943 03 54 00
Elgeta	943 03 54 00
Eskoriatza	943 71 44 52
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 03 54 30
Hies Ekimena	943 79 26 99
Udaltzaingoak	
Antzuola	943 76 62 46
Aramaio	945 44 50 16
Arrasate	943 79 14 39
Aretxabaleta	943 71 18 63
Bergara	943 77 91 06

Eskoriatza	943 71 44 07	Laixan / Oñati	943 71 63 11
Leintz Gatzaga	943 71 47 46	Txirritola / Aram.	945 44 52 66
Oñati	943 78 04 11		

**GARRAIOAK**

Eusko Trenbideak	902 54 32 10
PESA	902 10 12 10
Taxiak	
Antzuola	943 76 61 81
Arrasate	943 79 12 22
Aramaio	945 44 50 33
Aretxabaleta	943 77 12 64
Bergara	943 79 12 22
Eskoriatza	943 71 40 59
Oñati	943 78 03 65
RENFE	902 24 02 02

**DEBAGOIENA**

Mankomunitatea	943 79 33 99
Hiltzategia (Zubillaga)	943 78 15 12
Mendi nekazaritza elk.	943 76 25 47
Nekazaritza Ganbera	943 76 10 15
Zerga Bulegoa	943 76 58 63
Euskara Taldeak	
Debagune	943 77 12 28
AED / Arrasate	943 71 21 17
Axtroki / Eskoriatza	943 71 54 34
Goibeko / Elgeta	943 78 90 85
Loramendi / Aretx.	943 77 09 70
Idolaz / Antzuola	943 78 70 56
Jardun / Bergara	943 76 08 19

Hondakindegia Alternatiboak	
Arrasate	943 77 11 43
Bergara	943 76 44 42
Oñati	943 78 36 67

Kiroldegiak	
Aramaio	945 44 53 35
Arrasate	943 77 16 77
Aretxabaleta	943 71 26 28
Bergara	943 76 56 41
Elgeta	943 76 82 84
Eskoriatza	943 71 53 28
Oñati	943 71 63 75

Kultura Etxeak	
Antzuola	943 76 60 65
Aramaio	945 44 53 74
Arrasate	943 77 01 05
Aretxabaleta	943 71 10 27
Bergara	943 77 91 58
Eskoriatza	943 71 46 88
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 03 53

Udalak	
Antzuola	943 76 62 46
Aramaio	945 44 50 16
Arrasate	943 79 09 00
Aretxabaleta	943 71 18 62
Bergara	943 77 91 00
Elgeta	943 76 80 22
Eskoriatza	943 71 44 07
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 04 11

**Zozketak**

**BONOLOTOA**

Astelehena, 19  
**2 • 13 • 15 • 19 • 27 • 40**  
 Osagarria: 8 | Itzulketa: 8

Martitzena, 20  
**6 • 10 • 26 • 34 • 36 • 46**  
 Osagarria: 25 | Itzulketa: 3

Eguaztena, 21  
**5 • 22 • 31 • 32 • 41 • 44**  
 Osagarria: 19 | Itzulketa: 0

Egubakoitza, 23  
**15 • 26 • 28 • 41 • 44 • 45**  
 Osagarria: 21 | Itzulketa: 5

**ONCE**

Astelehena, 19 **84.952**

Martitzena, 20 **54.816**

Eguaztena, 21 **32.267**

Eguena, 22 **98.476**

Egubakoitza, 23 **63.157**

Kupoitzarra (063 seriea)

Domeka 25 **49.108**

Kupoitzarra (007 seriea)

**LOTERIA PRIMITIBA**

Eguena, 22  
**9 • 17 • 42 • 45 • 46 • 48**  
 Osagarria: 37 | Itzulketa: 3

Zapatua, 24  
**18 • 26 • 31 • 39 • 46 • 47**  
 Osagarria: 41 | Itzulketa: 1

Zapatua, 24 (Saritzarra)  
**14 • 28 • 38 • 41 • 54**  
 Itzulketa: 7

**Gazte zerbitzuak**

**BEKAK |**  
 • **Literatura.** Beasaingo Udala. CAF. ELKAR.Literatura sorkuntzako VIII. Igartza Beka. Narratiba lanak, eleberri edo ipuin-bildumak. Originalak eta euskaraz idatziak. Epea: ekainaren 30a.

**EKINTZAK |**  
 • **Musika elektronikoa.** Donostiako Musika Elektronikoaren X. Nazioarteko Jaialdia. Abuztuaren 12, 13 eta 14an izango da, Play aretoan.  
 • **Elkartrukea.** Donostiako Udala. Europar gazteen elkartrukea: Donostia-Wiesbaden, uztailaren 8tik 16ra. Epea: ekainak 26.

**LEHIAKETAK |**  
 • **Literatura.** Donostia Kultura, Esnatu Emakume Taldea.

Literatura kontakizunen XIV. Lehiaketa. Gaia libre, euskaraz zein gaztelaniaz. Epea: azaroaren lehen amaituko da.

**LANA |**  
 • **Ingeniari teknikoa.** Zarauzko Udala. Herri-lanetako ingeniari tekniko bat edo arkitekto tekniko bat aldi baterako kontratatzeko. Epea: ekainaren 28an bukatuko da.  
 • **Begiraleak.** Hezi Elkarteak egiten du deialdia. Begiraleak behar dira Hondarribiako Udaleku irekietarako. Udalekuak uztailaren zehar egingo dira. Epea: ekainaren 30ean amaituko da.  
 • **Euskara teknikaria.** Aretxabaletako Udalak behar du euskara teknikari bat. Epea: ekainaren 29ra arte eman ahal izango da izena.

**ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:**  
 Biteri etorbidea 3. 943 77 00 65  
 gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net  
**BERGARAKO GAZTEENDAKO**  
**INFORMAZIO GUNEA:**  
 Kultura etxea. 943 77 91 57  
 gzerbitzua@euskalnet.net

**OÑATIKO GAZTEENDAKO**  
**INFORMAZIO GUNEA:**  
 Foruen plaza 4. 943 71 82 57  
 gazteinformazioa@oinati.net



**Bertan salgai**

ASTELEHENKO  
**Goienkaria**  
 astelehenean, aste bukaera osoa

**Antzuola:**  
 • Altzarte okindegia  
 • Martin okindegia

**Elgeta:**  
 • Kioskoa

**Bergara:**  
 • Bolintxo okindegia  
 • Ogizun okindegia  
 • Konde okindegia  
 • Olabe okindegia  
 • Mizpildi okindegia  
 • Plazako Kioskoa  
 • Txurrerua Kioskoa

**Arrasate:**  
 • Eroski merkatal guneko prentsa txokoa  
 • Balantzategi kioskoa  
 • Portaloiko kioskoa  
 • Usue paper denda  
 • Bolintxo Okindegia  
 • Kurruko okindegia

**Aretxabaleta:**  
 • Errasti kioskoa  
 • Ibarra estankoa

**Eskoriatza:**  
 • Dorleta liburudenda

**Leintz Gatzaga:**  
 • Labidea

**Aramaio:**  
 • Plazako kioskoa

**Oñati:**  
 • Haritza Kioskoa  
 • Ibarrondo Kioskoa  
 • Eskolatxo okindegia  
 • Arantxa okindegia  
 • Irizar okindegia  
 • Ogibari okindegia  
 • Olakua okindegia  
 • San Lorentzo okindegia  
 • Errota okindegia

### Zorion agurrak



ARRASATE  
**Manex Villar**  
Ekainaren 21ean, 5 urte. Zorionak! Arizmendi Sanvi Txikikoan partetik.



ARRASATE  
**Guillermo del Campo**  
Ekainaren 25ean urteak. Zorionak! Familiakoak.



ARRASATE  
**Mara Hernandez**  
Ekainaren 25ean, 6 urte. Zorionak eta muxu handi bat. Lehengusuak.



ARRASATE  
**Sara Cuevas**  
Ekainaren 26an, 5 urte. Zorionak! Arizmendi Sanvi Txikikoan partetik.



ARRASATE  
**Iban Puerto**  
Ekainaren 27an urteak. Zorionak eta urte askotarako! Koadrilakoak.



ARRASATE  
**Koldo Abarrategi**  
Ekainaren 27an, 6 urte. Zorionak! Arizmendi Sanvi Txikikoan partetik.



ARRASATE  
**Pedro Zumelaga**  
Ekainaren 29an, urtebetetzea. Zorionak! Arrasate Press-ko lagunak.



BERGARA  
**Unai Sanpietro**  
Ekainaren 26an, 5 urte. Zorionak, guapo! Malen eta Asier.



BERGARA  
**Mikel Moñux**  
Ekainaren 26an, 5 urte. Zorionak, etxeko guztien partetik!



BERGARA  
**Nahia Cotillas**  
Ekainaren 28an, 14 urte. Zorionak, familiakoan partetik: Jon, Ainhoa eta Unai.



BERGARA  
**Lucia Robla**  
Ekainaren 28an, 5 urte. Zorionak eta urte askotarako. Hugoren partetik!



BERGARA  
**Sara Balentziaga**  
Ekainaren 28an, 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxekoan partetik.



ARETXABAETA  
**Gorka Etxabe**  
Ekainaren 19an urtebetetzea. Zorionak, Gorka! Laneakoak.



OÑATI  
**Arantazu Ezkibel**  
Ekainaren 22an urtebetetzea. Zorionak, Aran! Laneakoak.



ARAMAIO  
**Isa Babarro**  
Ekainaren 21ean, urtebetetzea. Zorionak! Etxekoan partetik.



### Hildakoak

Lucia Morales Sanchez | Aretxabaetan, ekainaren 25ean. 84 urte.

### Jaiotakoak



**Txomin Galdos Astigarraga**  
Oñati • 3,560 Kg. Ekainak 19.  
Gurasoak: Eli (Oñati) eta Iñaki (Oñati). Argazkian umea amarekin.



**Jon Sanchez Oncala**  
Arrasate • 3,800 Kg. Ekainak 22.  
Gurasoak: Montse (Arrasate) eta Carlos (Matiena). Argazkian aitarekin.



**Julisa Sosa Melgar**  
Bergara • 4,200 Kg. Ekainak 22. Gurasoak: Katia (Bolivia) eta Jesus Ulises (Bolivia). Argazkian umea aitarekin.



**Gorka Barrutia Arantzabal**  
Bergara • 3,950 Kg. Ekainak 23.  
Gurasoak: Eva (Bergara) eta Iñaki (Bergara). Argazkian umea kuman.



**Zanit Dosantos Some**  
Eskoriatza • 3,070 Kg. Ekainak 24.  
Gurasoak: Nahikari (Eskoriatza) eta Felipe (Portugal). Argazkian haurra kuman.



**Oier Gartzia Aiestui**  
Oñati • 3,490 Kg. Ekainak 23. Gurasoak: Miriam (Oñati) eta Jose Miguel (Oñati). Argazkian Oier amaren besoetan.

## Zoriondu ARRASATE IRRATIAN



Ikaskideak, lagunak edo senitartekoak zoriondu nahi badituzu, **ARRASATE IRRATIAK** egunero ematen dizu aukera hori.

**Bidali eskaria:**  
[irratia@goiena.com](mailto:irratia@goiena.com) helbidera edo deitu 943 71 17 31 telefonora.

Egunero,  
zorion agurren tartea  
**ARRASATE IRRATIAN**

**FM107.7**

**ARRASATE IRRATIA**

**Gaur irratian**

**Arrasate Irratia**

FM 107.7

'Igo autobusera' | 10:00

**Parrillada eta Numenak**

Gaur, astelehena, hegaluze parrillada egingo dute Arrasateko plazan. Jose Inazio Atorrasagasti getariarra arituko da sukaldari lanetan eta hari egindako elkarrizketa emango dute. Yarleku taldeak arratsaldean egingo duen *Numenak* ikuskizunaren gainean ere arituko dira.

**Oñati Irratia**

FM 107.4

'Eguerdi saioa' | 12:10

**Udaleku irekien gainean berbetan**

Udako programazioa hasiko dute gaur Oñati Irratian. Irratsaioa 12:00etatik 13:30era izango da eta gauean errepikatuko dute, 22:00etan. Gaur Jaione Elortza udaleku irekietako arduradunarekin izango dira berbetan.

**Euskadi Irratia**

FM 104.4

'Faktoria' | 11:30

**Google: Luis Fernandez eskutik**

**Radio Euskadi**

FM 98.2

'Boulevard' | 09:30

**Joxe Joan Gonzalez de Txabarri diputatu nagusia**

**Herri Irratia**

FM 99.8

'Kalez kale' | 11:30

**Erretiratuen elkarteko inaugurazioa Beasainen**

**GOITB programazioa**

Astelehena, 26



**Txirrindularitza proba 'Harmailatik' saioan 22:15**

Segurako San Juan Txirrindularitza sariaren 48. ekitaldiko irudiak gaur *Harmailatik* saioan. Julen Iriondorekin.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Behazulo. Gelma.
- 14:15 Eltze beroa. Legatz betea.
- 14:30 MI.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Munduari bueltaka. AEB.
- 15:30 MI.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Ilunpean. Rafa Rueda.
- 16:15 Klip@k.
- 16:30 MI.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 Didjeridu. Deiane Arrieta.
- 17:30 Zera dio.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Berbaire.
- 18:15 Sustrai.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klip@k.
- 19:15 Behazulo. Gelma
- 19:45 Berriak. Deiane Arrieta.
- 20:15 Marrazki bizidunak.
- 20:45 Berriak. Goiatz Arana.
- 21:15 Harmailatik: Segurako frog.
- 21:45 Berriak
- 22:15 Harmailatik.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Jazz.
- 23:45 Berriak.
- 00:15 Emisio amaiera.

Martitzena, 27



**'Berbaire': gizarte eta politika gaiak 22:15**

Maite Aristegi (argazkian), Jon Molina eta Joserra Elortza gaurko gonbidatuak *Berbaire* saioan. Iban Arantzabalek aurkeztuta.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Jazz.
- 14:15 Zera dio.
- 14:30 MI.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Elkartasun bideak.
- 15:30 MI.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Harmailatik: Segurako frog.
- 16:15 Klip@k.
- 16:30 MI.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 Jazz.
- 17:30 Danbaka. Muted.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Erreportajea. Satur Goia.
- 18:15 Munduari bueltaka. AEB.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klip@k.
- 19:15 Harmailatik. Segurako frog.
- 19:45 Albisteak. Julen Iriondo.
- 20:15 Marrazki bizidunak eta zorion agurrak.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 San Juanak 2006.
- 22:15 Berbaire.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Behazulo.
- 23:45 Albisteak.
- 00:15 Emisio amaiera.

Eguaztena, 28



**Arritxu Oliden 'Debarri'-n 21:47**

Arritxu Oliden Aretxabaletako alkatea elkarrizketatuko du Alberto Gorritibereak. Ikus-entzuleek ere parte hartzeko aukera izango dute.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Berbaire.
- 14:15 Danbaka. Muted.
- 14:30 MI.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 San Juanak 2006.
- 15:30 MI.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Teknopolis.
- 16:15 Klip@k.
- 16:30 MI.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 Berbaire.
- 17:30 Zera dio.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Sustrai.
- 18:15 Teknopolis.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klip@k.
- 19:15 Didjeridu.
- 19:45 Albisteak.
- 20:15 Marrazki bizidunak eta Zorion Agurrak.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Teknopolis.
- 21:45 Gaurkoak
- 21:47 Debarri: Arritxu Oliden Aretxabaletako alkatea.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 San Juanak 2006.
- 23:45 Albisteak.
- 00:15 Emisio amaiera.

Eguena, 29



**Debagoieneko albistek 22:15**

Bailaran gertatutakoa jarraitzeko aukera duzue egunero GOITBko albistegiei esker. Deiane Arrieta eta Julen Iriondo kazetarien eskutik.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Segurako dantza txapelketa.
- 14:15 Zera dio.
- 14:30 MI.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Sustrai.
- 15:30 MI.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Debarri: Arritxu Oliden Aretxabaletako alkatea.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 Jazz.
- 17:30 MKT musika.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Elkartasun bideak.
- 18:45 Iparrorratza: Irak.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klip@k.
- 19:15 Erreportajea.
- 19:45 Albisteak.
- 20:15 Marrazki bizidunak eta Zorion Agurrak.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Sustraiak.
- 21:45 Albisteak.
- 22:15 Didjeridu: elkarrizketak eta erreportajeak.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Berbaire.
- 23:45 Albisteak
- 23:15 Emisio amaiera.

Egubakoitza, 30



**'Behazulo' saioa, Goiatz Aranarekin 21:15**

Goiatz Arana kazetariak aurkeztuta, debagoiendarroir eragiten dizkiguten hainbat gai plazaratuko dituzte *Behazulo* saioan.


- 13:00 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Behazulo.
- 14:15 Motzean.
- 14:30 MKT.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Iparrorratza. Peru.
- 15:30 Mikrosaioa 1.
- 15:35 Lazkao Txiki.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Didjeridu. Oier Sarasua.
- 16:15 Klip@k.
- 16:30 Mikrosaioa 1.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 Berbaire.
- 17:30 Eltze beroa. Legatz betea.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Ilunpean. Rafa Rueda.
- 18:15 Teknopolis.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klip@k.
- 19:15 Erreportajea.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak eta zorion-agurrak.
- 20:45 Albisteak.
- 21:15 Behazulo.
- 21:45 Berriak.
- 22:15 Ilunpean.
- 22:45 Albisteak.
- 23:45 Berriak.
- 00:15 Emisio amaiera.

**Kamera aurrean**



**"India bestelakoa izango da hemendik hamabost urtera. Gazteak dira Indiaren aberastasunak"**

GRACY JOSEPH |  
INDIAKO MOJA  
Berriak, 2006-06-17



**"Arrasate XV. mendean oso herri ezaquna izan zen hemengo burdinari esker"**

JOSE MARI VELEZ DE MENDIZABAL |  
EUSKALTZAINA  
Berriak, 2006-06-20

**Rafa Rueda**

**ILUNPEAN**

Egubakoitzean, ekainaren 30ean, 22:45ean Oihana Elortzak aurkeztuta



**Ikustekoa!**

Ekainaren 26a: 092 zozketa

ASTELEHENKO GOIENKARIA

Harpidedunen

**txokoa**

# Zorionak irabazleoi!

Gaur, ekainak 26, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak!  
*Asteleheneko Goienkaria*-ko harpidedun bazara, adi:

**Zeu izan zaitezke hurrengo zozketako irabazleetako bat!**

## BALDINTZAK

- *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

**902 36 38 51**

Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 18:30etara.

Harpidetza kuota:

**24 euro**

2006 bukaera harte.

ASTELEHENKO  
**Goienkaria**

astelehenean, aste bukaera osoa



Hauek dira aste honetako sarien irabazleak.

Zure izena zerrendan badago, **ZORIONAK!**

Bi gonbidapen Donostiako AQUARIUMa bisitatzeko. (Saridun bakoitzari bi emango zaizkio).

- Cruz Maria Galdos Urkia (Oñati)
- Pili Otadui Agirrezabala (Bergara)

Bi gonbidapen FLORIDA-GURIDI zinemetara joateko. (Saridun bakoitzari bi emango zaizkio).

- Josu Ezkurdia Santamaria (Eskoriatza)
- Ramon Azkarate Lizarralde (Arrasate)

## Uztailaren 3ko sariak



**DONOSTIAKO  
AQUARIUMa**  
bisitatzeko bi gonbidapen.  
(saridun bakoitzari bi emango zaizkio)



## Hamarrekoa

RAFA RUEDA | MUSIKARIA

# "Spiderman-ekin gogoratzen naiz Tejerori buruz zerbait entzuten dudan bakoitzean"

Oihana Elortza

**1. Zer izango zinateke musikarik gabeko planeta batean jaio izan bazina?** Astronauta, musika duen planeta batera joateko.

**2. Ama jostuna duzu; pentsatu duzu inoiz sastre izatea?** Ez dakit josten. Botoia josten hasi nintzen behin eta sekulako errieta egin zidan amak, gaizki egin nuelako. Mozorrotzeko ere, beti jantzi izan ditut egindako arropak.

**3. Eta arropa diseinadore?** Hori gehiago gustatzen zait; lehen, diseinatu egiten nizkion amari alkandorak, gero hark niri egiteko. Arreba bada diseinadorea, baina ni ez. Hala ere, diseinua gustatzen zait eta disko azalei, adibidez, garrantzia ematen diet.

**4. Saredun eskua da bakar-kako bigarren lanaren izena. Spiderman-ek ere sareak gordetzen ditu eskuan.** Ez dut horregatik aukeratu izenburua, baina agian subkontzientean egon daiteke loturaren bat. Ondo gogoratzen naiz Tejerok estatu-kolpea eman zuenean gaixorik nengoela etxean.

Telebista aurrean pasa nuen eguna eta Spiderman-en marrazki bizidun pila bat bota zituzten, albiste berriak jaso bitartean. Harrezkero, Spiderman-ekin lotzen dut Tejero.

**5. Musikaz aldatzeko eskatu diozu inoiz zerbitzari bati?** Ez, eta gustuko musika ez baldin badago, tabernatik joaten naiz, tragoa hartu eta gero, hori bai.

**6. Taberna batera sartzen zarenean, musikari egiten diozu lehenengo kasu?** Bai. Batzuetan altuegi egoten da eta baxuago entzutea nahiago izaten dut, lagunekin hitz egiteko planean baldin banoa, batez ere.

**7. Kafe Antzokian edo San Mamesen pasatzen dituzu ordu gehiago?** Oraindik ez naiz bazkide egin, baina Athleticzale amorratua naiz. Kafe Antzokia, berriz, gustuko lekua dut eta sarri joaten naiz hara, bai.

**8. Tourreko porrarik egiten duzu?** Lejarreta, Gorospe, Lagua eta konpainiaren garaikoa naiz. Harrezkero ez dut txirrindularitza



Pilotan jokatzeko zuten txikitik. 15 bat urte zituela futbologatik aldatu zuten, baina laster utzi zuten, ona ez zelako. Orain, lagun arteko pilota partiduak izaten ditu batzutan eta pilotari ematen dion esku berekin jotzen du gitarra. Bakarkako bigarren diskoa atera du eta han eta hemen ari da kontzertuak ematen. Zapatuan, Arrastan egitekoa zen emanaldia bertan behera geratu zen euriagatik..

jarrailu. Pilota eta futbola bai, baina txirrindularitza ez.

**9. "Gauza txikiek ematen diote zentzua bizitzari", esan duzu. Erromantikoa zara?** Erromantiko zati bat

badut, baina baita jenioa ere haserretzen naizenean. Denok bezala.

**10. San Juan bezperako gaua berezia da zure-tako ere?** Bai.



### Biharamuna

Leire Lardizabal

## Egur solemnea

Ezagutzen duzue erregearen jantziaren ipuina? Hain zen, hain zen autoritarioa erregea, ezen herrian biluzik zihoala desfilatzen inor ez zela ausartu ezer esatera. Baina denek egiten zioten barre bizkarretik. Nik Arrasaten ostiralean egin zen Salve solemneari ipuin horren antza hartu nion. Herriak onartzen ez zuen errege haren antza hartu nion burua makurtuta zihoan alkateari. Ipuineko herritarrek izan zuten aukerarik biluzik zihoan erregeari zerbait esateko, bere izaite zatarra tapatzen zuten jantzi ponpoxorik gabe zegoela. Arrasatearren kasuan, autoritate autoritarioak desfilearen lehen ilaran bere soldadu gorri eta beltzak jarri zituen, bakarren bat zerbait esatera ausartzen bazen ere, agudo isilarazteko. Egia esan, Ignazio Lacunzari garai txarrean tokatu zaio naruru bizian geratzea. Jantziaren azpian gordetako intimitateak aieratuta, zaila izan behar du herrian burutente agertzea. Ipuineko erregeak behintzat lotsa apur bat pasa zuen, herritarrek pentsatuko zutenagatik kezkatuta. Arrasaten lotsagarria izan zena, berriz, Ertzaintzaren eskudroiak herritarrei emandako tratua izan zen. Kolpeak, mehatxuak eta irainak... autoritatearen biluztasuna ezkutatzeko.

Datorren astean puntu bidezko gidabaimena martxan jarriko dutela eta, herritarren aurkako erasoak egiten dituzten autozko zein oinezkoen herritar karneta kentzea proposatzen dut. Baita haien buruak babesteko manipulazioa, presioa eta errepresioaren soldaduak erabiltzen dituzten morroi ere.

Europear Bermearekin  
**Km.0 eta aukerako autoen erakusketa handiena** ELGOIBARREN

AUTO GARBIKETA  
**DOAN**

UZTAILAK 1  
Goizean 10:00 - 14:00  
Arratsaldean 16:00 - 19:00

UZTAILAK 2  
Goizean 10:00 - 14:00

**180** MARKA GUZTIETAKO 180 AUTO ERAKUSKETAN  
4x4, industrialak, coupeak, monobolumenak, berlinak, familiarrak...

Nabigatzailea OPARI

km.0 Giauto  
943748598

Tel.943 74 85 98 · Faxa: 943 74 85 99 · Pol. Olaso, 25 ELGOIBAR · vomendaro@giauto.es